


# Berrigara



## ARRATUSTEAK

Sardina lurperatu arte jaietan blai

Har ezazu erabakia Renault Diesel baten alde

**MECA  
BERGARA**

Amillaga 5  
BERGARA  
T.F. 943 76 40 68

**Segurtasunagatik**



**Ekipamenduagatik**

**Potentziagatik**

# B e r g a r a k o

# OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOSA (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 70
- GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 2.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOA: GARCIA**
- Cristina.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 70 20
- **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 59
- CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber** Bidekurutzeta 4, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO**
- KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA: IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ezkerra. 943 76 70 20
- **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ezkerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76



## Ez dago emakumerik

Elena Laka / Abokatua

**E**makumeak behar dituzte BERRIGARAN, normalean hemen irakurtzen dena gizonetzkoek idatzita delako, eta hori, jakina, ez da plana. Horregatik (eta lerro gutxi batzuk tajuz moldatzeko kapaz naizela pentsatuko dutelako, sinistu nahi dut, eskerrik asko eh!) deitu zidaten herri honetako errebistan idazteko, nahiz eta kalean sarritan gogorarazi didaten "zu ez za Bergakúa" (sorlekuak eta zergak ordaintzeak ematen du jatorria, antza). BERRIGARAN, leku gehienetan bezalaxe, emakumea ondasun urria da...

Euskararen Kontseilua osatzen duten pertsona serioetatik (ikus erretratuak) bat edo bi dira emakumeak: Ebaren ondorengoak ez dugu euskal mundua ordezkatzen. Iruñeako hautetsien biltzarra, herri honetako izaera nazionalerako erakundea: emakumeak kolorea ematen dute, gizonak dira nagusi. Internet-en ibiltzen diren nire sexuki-deak internauten %30a inguru baino ez dira: zenbat emakume agertzen da? Zenbat emakume-izen artikuluen sinaduretan? Berrien gai bai: emakume bat edo beste jipoitu dute, aktoreren bat igoal, Ainhoa Arteta eta Monika Le-

winsky. Gainerakoak, politikariak, sindikalistak (Maite, salbuespen zaitugu!) iritzi-emaileak, manifestaziogileak, nar-kotrafikanteak, nazioarteko poliziak, kirolariak!, banku-gizonak (noski), kotxe irgarkietakoak, langileak, idazleak, zinemagileak... neska gutxi, oso gutxi.

Non zaude orduan, sexukide? Kalean, lanean, etxean, tabernan gizonetzkoekin batera baldin badaude, pareko edo baldin bagara, biztanlegoaren %50a baino gehiago osatzen badugu, non demontre sartu gara? Errazak gara topatzen: garraio publikoetan edo kotxe txiki edo zaharretan, bide bazterretan zulatutako errobera konpontzen ez

*"Ezagun da herriko geografia diseinatzen dutenek gizonak bezala pentsatzen dutela eta ez dutela guardasol bat, errekaduetako poltsa bat eta ume-kotxe bat, dena batera, sekula santan eraman"*

dakigula, anbulatorioan umeekin, ile-paindegian, auzokoekin berriketan, merkatuan jubilatutako gizonari errietan, kafea hartzen ugazabaz txarto esaka, beherapenetan, aerobikean, emakumeok bakarrik elkartzen garen afari zaratatsuetan, parkeetan. Pribatua versus publikoa. Gizonetzkoak dira mundua pentsatzen dutenak eta gero bere neurrira antolatu. Mundua eta baita Bergarako merkatua eta San Martin plazara sartzeko egin berri duten arranpa, bere barandila eta guzti. Ikusi besterik ez dago merkatua diseinatu zuena eta orain arranpa hori egin duena gizonak direla lasai asko esan ahal izateko. Igartzen da diseinatu duenak sekula ez duela ibili behar izan erosteko karru batekin, ume-kotxe batekin. Duela hilabete batzuk Udalak kaleko oztopoak kentzeko bi milioi pezeta erabiliko zituela zabaldu zuen lau haizetara. Bi milioi pezeta! Ezagun da Udalean erabaki hori hartu dutenek, herriko geografia diseinatzen dutenek, gizonak bezala pentsatzen dutela, eta ez dutela guardasol bat, errekaduetako poltsa bat eta ume-kotxe bat, dena batera, sekula santan eraman. **B**

barruan



**Igor Gutierrez**

Pilotaria

*"Gipuzkoako txapelketako finala uste baino errezago irabazi genuen"*

21.



**Ramon Aranzabal**

Pintorea

*"Pastelekin pintura abstraktoak egitea oso normala ez denez, trokelak apurtu ditut"*

26.



**Iñaki Quintanilla**

Akordeoilaria

*"Trikiti zaharra eta berria ditut gustoko; Alaitz eta Mainer ere atsegin dut"*

29.

## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1945.** Otsailaren 19an piztu ziren azken aldiz Zerrajerako Labe Garaiak. Aurretik ere, 1940rako, ezinean ziharduten, Bigarren Mundu Gerraren eraginez, Europak bere industria militarizatu eta lehengaiak hornitzeari utzi baitzion.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1503.** Otsailaren 10ean Errege Katolikoen aginduz, zergaetxea ipini zen Tolosan, Gipuzkoa eta Nafarroaren artean.

**1874.** Otsailaren 11n Don Karlos Espainiako erregegaiak Oñatiako Unibertsitatea irekitzea erabaki zuen.

**1912.** Otsailaren 10ean Pilotarien Elkarteak sortu zen Bilbon.

### MUNDUAN GERTATUA

**1945.** Otsailaren 12an Telesforo Aranzadi bergararra hil zen Bartzelonan.

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 5

9-13-23-27-29-45 (osag.32/itz.1)

#### Astelehena 8

3-12-14-18-27-32 (osag 34/itz.7)

#### Martitzena 9

8-16-22-42-45-46 (osag.4/itz.3)

#### Eguaztena 10

1-2-19-20-23-31 (osag.18/itz.9)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 6

38-6-31-27-1-24 (osag.45/itz.7)

#### Domeka 7 Saritzarra

16-8-42-38-2-4 (osag.23/itz.1)

### ONCE

**Eguakitza 5:** 22.983 (154 seriea)

**Astelehena 8:** 77.616

**Martitzena 9:** 48.301

**Eguaztena 10:** 49.939

### BESTE BATZUK


**Ipintza institutuko ikasleak**

(Ertamerikarako): 06.330

**AEK, soldata bat:** 36.249

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*



Eguraldiak hobera egingo du astebukaeran. Fresko egiten jarraituko du, baina eguraldi lehorragoa izango dugu, anti-zikloiaren erdigunea Frantzia aldean kokatuko da eta. Hala ere, ipar-haizeak joko du eta hotza egingo du.

## Ilargiaren aldiak



Ilbehera: otsailak 8



Ilberri: otsailak 16



Ilgora: otsailak 23



Ilbete: martxoak 2

## Eguzkia

*Domeka, otsailak 14*



Sortu: 08:15



Gorde: 18:52

## Temperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 4</b>	7	-1	-
<b>Eguakitza 5</b>	10	6	0,2
<b>Zapatua 6</b>	10	6	0,7
<b>Domeka 7</b>	10	6	27,9
<b>Astelehena 8</b>	8	5	7,6
<b>Martitzena 9</b>	8	4	38,6
<b>Eguaztena 10</b>	4	0	19,1


## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

### Antosiñ

Ura edateko erabiltzen den eskuleku bakarrek metalazko ontzitxoak. Txoleta.

- Kaletik etorri tta antosinkara ura eran neban danga-danga.



JOSU OJANA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Musika zerutiarra

Quebec-eko (Kanada) Unibertsitateko diseinu laborategian muntaia bitxia egin dute: "Arpa Kleperian" tramankulua asmatu dute. Instalazio honek laser izpiak bidaltzen ditu zerurantz eta teleskopio batek hodeien estalkiak sortutako laser modulazioak hartzen ditu. Ondoren, sintetizagailu batek musika jotzen du 228 intrumenturen soinuarekin.

## Farmaziak

### Eguakitza 12:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

### Zapatua 13:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

### Domeka 14:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

### Astelehena 15:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

### Martitzena 16:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

### Eguaztena 17:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

### Eguena 18:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

## Ogia

**Domeka 14:** Ogizun.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak 112

DYA 943 78 71 57

Gurutze Gorria 943 76 55 76

Larrialdiak 943 46 11 11

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Anbulantzia 943 55 49 62

Udaltzaingoa 943 77 91 06

Ertzaintza 943 76 53 40

Suhiltzaileak 943 78 28 03

Osasun Etxea 943 76 24 40

Arrasateko ospitala 943 03 53 03

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 40

Angiozarko medikua 943 78 90 07

Antzuolako medikua 943 76 62 03

### GARRAIOAK

Euskotren 943 45 01 01

PESA 902 10 12 10

Taxiak 943 76 19 50

RENFE 943 28 25 95

### UDALA

Udaletxea 943 77 91 00

Udal Artxiboa 943 77 91 00

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultur Etxea 943 77 91 50

Liburutegia 943 77 91 02

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 40

### BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 00

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 07

Jubilatuen Etxea 943 76 21 40

Postetxea 943 76 28 00

## zorion agurrak

Berrigara 356an, **OTSAILAREN 19a** eta **25a** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko dira.



**Rosa Mari Flores**  
Otsailaren 12an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Paki Carmona**  
Otsailaren 16an  
25 urte.  
Urte askotarako!  
Bergarako familia.



**Andoni Rodriguez**  
Otsailaren 15ean  
18 urte. Urte asko-  
tarako! Gurasoak  
eta anai-arrebak.



**Esther Ortiz de Zarate**  
Otsailaren 12an  
22 urte. Urte asko-  
tarako! Etxekoak.



**Itaso Egizabal**  
Otsailaren 12an  
17 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrilakoak.



**Marije Zubimendi**  
18an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Familia eta Antzu-  
lako lagunak.



**Jon Ortiz de Zarate**  
Otsailaren 13an  
19 urte. Urte asko-  
tarako! Etxekoak.



**Idoia Urbina**  
12an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Familia eta Aitziber  
alaba ponteakoa.



**Eider Beistegi**  
Otsailaren 12an  
15 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrilakoak.



**Aitzol Lenisoro**  
Otsailaren 15ean  
5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Miriam Martinez**  
16an 12 urte. Urte  
askotarako! Guraso-  
ak, anai-arrebak eta  
koinata-koinatuak.



**Etor Larrañaga**  
Otsailaren 13an  
21 urte.  
Urte askotarako!  
Ana eta Lide.



**Ander Orbegozo**  
Otsailaren 15ean  
6 urte. Urte askota-  
rako! Amaboa, ihin-  
ta eta Igarokoak.



**Jon Santos**  
Otsailaren 12an  
13 urte. Urte asko-  
tarako! Amamaren  
etxeko denok.



**Ane Agiriano**  
Otsailaren 15ean  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Nora Casquero**  
Otsailaren 15ean  
2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Saray Plazas**  
Otsailaren 13an  
3 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Yaiza.



**Isa Sanz**  
Otsailaren 14an  
urtebetetzea  
Urte askotarako!  
Zuhaiztiko peña.



**Iñaki Legazpia**  
Otsailaren 16an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Markel.



**Balentin Gorosabel**  
Otsailaren 14an  
82 urte. Urte asko-  
tarako! Edurne.



**Maria Josefa Ormazabal**  
Otsailaren 13an  
56 urte. Urte asko-  
tarako ama! Nerea.



**Beñat Rezusta**  
Otsailaren 13an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Ariz.

### ■ jaiotakoak

#### BERGARA

**Jon Cotillas Solaun**  
Urtarrilak 31  
**Alex Astiazaran Orbea**  
Otsailak 1  
**Alex Piñero Flores**  
Otsailak 1

### ■ hildakoak

#### BERGARA

**Nieves Zabaleta Pildain**  
Otsailak 5, 83 urte  
**Carmen Cuesta Ots**  
Otsailak 6, 84 urte  
**Maria Retegi Aiastui**  
Otsailak 7, 67 urte

#### Narciso Larrañaga Telleria

Otsailak 9, 80 urte  
**Eusebio Gorrotategi Etxebarria**  
Otsailak 9, 68 urte  
**ANTZUOLA**  
**Patricio Rodriguez Acosta**  
Otsailak 4, 61 urte

### URTEURRENA

## Regino Sarasketa Amuskibar

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 14, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Antonio Etxaniz Mazorriaga

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 14, goizeko 11:30etan, Antzuolako parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Bittori Zabaleta Alberdi

*Ramon Gisasolaren alarguna*

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 14, goizeko 11:30etan, Osintxuko parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Adoracion Gallastegi Alberdi

*Jose Gantxegiren alarguna*

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 14, goizeko 11:30etan, Osintxuko parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ANTZERKIA

► **"Lourvier's story"** bihar zapatua, hilak 13, 22:30etan Arrasateko Amaia antzokian. 1.000 pezeta (800 Gazte Txartelarekin).

## MUSIKA

► **Shanti-Rd eta June of 44** taldeak gaur 22:30etan Jam aretoan. 1.000 pezeta; 750, 25 urtera arteko gazteentzat.

► **Def Con Dos eta Freak XXI** taldeak bihar, zapatua, 21:00etan Jam aretoan. 1.500 pezeta takilan, 1.300 aurrez.

► **The Impresentables eta Berri txarrak** taldeak bihar, zapatua, 22:30etan Elgetako Gaztetxean.

► **Udal Musika Banda eta Orkestra Sinfonikoaren** kontzertua domekan 12:30etan Frontoian.

► **Mikel Markezen eta Pako Aristiren** "Tribuaren hitz galduak", poesia eta musika tartekatzen dituen ikuskizuna domekan 19:30etan Gartzela Zaharrean.

► **Pürr** taldea datorren eguaitzearan, hilak 19, Infernokuan.

## ERAKUSKETA

► **Ramon Aranzabalen** margo erakusketa domekara

## JAIK

### Aratusteak

#### Zapatutik martitzenera bitartean

Edurak Karnabalen etorrera iragarri du aurten. Hala ere, martitzenean sardina lurperatu bitartean, Udalak programa zabala osatu du. Bihar, karnabal zapatuan, hainbat ekitaldi izango dira: 17:00etan gazttxoek Gorritik ekarritako abereekin Plazan jolasteko aukera izango dute eta 19:00etan buruhandi eta erraldioen kalejira abiatuko da Plazatik bertatik. Orduerdi beranduago Xamatx dantzaldearen saioa izango da eta 21:30etan suzko zezena. Gauean, berriz, Nervion Orkestrarekin dantzaldia. Ordurako mozorroak izango dira benetako protagonistak. Gogoratu Bedelkarrek sari bana emango diela egunotako mozorro onenari zein ondoen girotutako tabernari.

Domekan Udal Bandak eta Orkestra Sinfonikoak aratusteetako kontzertua eskainiko dute 12:30etan Frontoian, ondoko programarekin: Marcial (Pasodoblea, J.M. Domingo), Zampa (Obertura, F. Hérold), La can-

cion del olvido (Zarzuclaren selekzioa, J. Serrano) eta Miss Saigon (Musikaleko selekzioa, Schönberg). Bukaeran ohizko sorpresa izango da. Arratsaldeko 5etan Pinpilinpaua nafar antzerki taldeak "Sekula guztira bideak" izenburuko lana antzetzeko du herriko kaleetan eta 18:30etan Furunda trikitilari taldearekin dantzaldia izango da Plazan.

Martitzenean, Musika Eskolako txarregarekin kalejira egingo da 16:00etan, 17:00etarako Kukuma hankapalu taldearen jolasak iragarri dira eta iluntzeko eta gaueko dantzaldia Egan taldeak alaituko du. Tartean, sardinaren entierroa egingo da 20:30etan Plazan. Jai Batzordeak herriarrak parte hartzera animatu nahi ditu; bertara azalduko kandelak banatuko zaizkie sardina ohorez agurtzeko.



Bedelkarrek Aratusteetako mozorro onena sarituko du.

arte Kultur Etxean.

## IKASTAROAK

► **Arrasate Yoga Elkarteak** honako ikastaroak antolatzen ditu: yoga hasiera, gorputzburua eta hunkipenaren inte-

grazioa yoga psikofisiologiko (hatha-yoga) bidez eta topaketa pertsonala. Argibideak 943 79 35 76 zenbakian.

## LEHIAKETAK

► **Jarduneko Gazte**

**Taldeak txorimalo lehiaketa** iragarri du Erramu Zapaturako, martxoaren 27rako. Nahi duen edonork parte har dezake, bakarka nahiz taldeka (gehienez 8 pertsona talde bakoitzeko). Hiru talde bereiztuko dira: 14 urteko beherakoak, 15-60 urte bitartekoak.

## LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



Paper pintatuak - Pinturak

## A. ZANGITU

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA

IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

koak eta 60 urtetik gorakoak. Kategoria bakoitzeko onenen-tzat sariak izango dira. Izen ematea Kartzela Zaharrean martxoaren 24ra arte. Argibide gehiago 943 76 36 61 edota 943 76 08 19 zenbakietan.

► **HIES Ekimena** taldeak "HIESa edo sexu segurua" gaiaren inguruko komiki lehiaketa deitu du. Bi kategoria izango dira: 15-18 urte bitartekoentzat lehena eta 19 urtetik gorakoentzat bigarrena. Lanak entregatzeko epea martxoaren 1ean bukatuko da. Argibideak 943 76 26 99 telefono zenbakian.

## DEIAK

► **San Joxepe** jubilatuen elkararte Inauteri festa iragarri du karnabal martitzenerako. Bazkarirako izen-ematea (2.500) Jubilatuetan bertan, 943 76 21 40 zenbakian. Egun horretan mozarrotzen diren guztiak txanpain kopa bana emango zaie. Bazkalostean dantzaldia izango da.

► **Diputazioak** 65 urtetik gorakoei zuzendutako egonaldia antolatzen ditu Alcoceberren (Castellonen) eta Arnedillo, Fitero edo Seron-go bainuetxe-etan. Era berean, Xacobeo 1999 programaren barruan, Galizia bisitatzeko bost eguneko bidaiak antolatu dira. Guztiatarako txanda ezberdinek daude. Argibideak eta izen-ematea 943 76 21 40 zenbakian.

► **Jose Mari Etxanizek** 19 urte beteko ditu kartzelan datorren eguakitzean. Hori dela eta, manifestazioa antolatu du Amnistiaren Aldeko Batzordeak datorren eguakitzean, hilak 19, arratsaldeko 7:30etan San Martin plazatik irtenda.

## OHARRAK

► **EAJren** Bergarako Uri Buru Batzarrak dei egiten die bere alderdikideei eguaztenean, hilak 17, 20:00etan Batzokiko aretoan izango den ez ohizko batzarrean parte hartzeko.

► **Mariaren Lagundiak**, 1999an ospatuko duen 200. urteurrenari begira antolatutako ekitaldien artean, argazki erakusketa egin nahi du. Ikastetxearekin zerikusia duten argazkiak dituztenei erakusketan laguntzeko dei egiten zaie. Behin kopia atera ondoren original guztiak itzuliko dituzte.

► **Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak** (HHI-EPA) 1998-99 ikasturtearen bigarren lauhila-beterako matrikula epea zabalik dagoela jakin arazten du. Argibide gehiago eskolan bertan (Barrenkalea 33, 2. pisua) edo 943 76 44 52 zenbakian.

## KINTADAK

► **1946an** jaiotakoen afaria martxoaren 13an Tartufo jate-txean. Izen-ematea Tartufon bertan (943 76 35 51).

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### Por siempre jamas

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

##### El abuelo

Zapatua: 22:30.

##### Mensaka

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### Estado de sitio

Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### Entre las piernas

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### El milagro de P. Tinto

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 19:00, 22:15.  
Domeka: 19:00, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### OÑATI. Santana

##### El milagro de P. Tinto

Eguakitza: 22:30  
Zapatua: 19:30, 22:30  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 20:00.

##### Keep cool

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ELORRIO. Arriola

##### Ojos de serpiente

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

##### El sabor de las cerezas

Eguena, zine-kluba: 20:15.

### POR SIEMPRE JAMAS

**Zuzendaria:** Andy Tennant.

**Aktoreak:** Susannah Grant, Andy Tennant, Rick Parks.

*Danielle* gaztea (Drew Barrymore) umezurtz geratuko da eta bere amaordeak (Anjelica Huston) helburu bakarra izango du, *Danielle Henry* printzearekin (Dougray Scott) ezkontzea alegia. Baina *Danielle* aurre egingo dio bere amaordeari eta borroka horretan Leonardo Da Vinci gaztearen laguntza izango du...

### EL ABUELO

**Zuzendaria:** Jose Luis Garci.

**Aktoreak:** Fernando

*Fernan-Gómez, Cayetana Guillén.*

Jose Luis Garcik klasikoen lanak pantailaratu ditu azkenaldian (*Cancion de cuna, La berida luminosa*). Oraingo honetan B. Perez Galdosen nobela egokitu du, familiaren ohorea defenditzen duen aitona eta bere bilobaren arteko harreman konfliktiboa kontatuz. Filmea Oscarren lehian izango da martxoan.

### MENSACA

**Zuzendaria:** Salvador G. Ruiz.

**Aktoreak:** Gustavo Salmerón, Tristán Ulloa, Adriá Collado.

Jose Angel Mañas idazlearen (*Historias del Kronen*) nobelan oinarritutako filmea. Honetan ere hiri handi batean bizi diren gazte batzuren egoera islatzen da. Nahiz eta gizarte maila ezberdinekoak izan, badira euren artean beraiek uste baino lotura gehiago. Pascal Gaigneren musikarekin.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

*Gracian Gracian*

usaindegia, mertzeria eta...  
**ihauterietarako osagarriak!**

Bidekurutzeta 6  
Tf: 943 76 10 25

## IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79


# Udal Ordezkarien Biltzarra dela eta, itxaropentsu indar abertzaleak

## Alkatea: "Udalek lehengo protagonismoa berreskuratuko dute"

**Alderdi abertzaleek Udal Ordezkarien Biltzarraren osatu zuten zapatuan Iruñean. Bertan egindako bileran Euskal Herri osoko 666 alkate eta zinegotzi izan ziren, guztira 302 herri ordezkatzu. Bergararik Victoriano Gallastegi alkatea (EAJ), Jesus Mari Garitano (HB) eta Juan Mari Garitano (EA) udal ordezkariak izan ziren Iruñean. Herriko ordezkari nagusia, alkatea, elkarriketatu dugu eta, era berean, zapatuan Iruñean izan ziren HBko eta EAJko bi zinegotzien iritzia jaso ditugu. Horretaz gain, Udal Ordezkarien Biltzarrak onartutako puntu nagusiak bildu ditugu.**

**G.** Zein izango da Udal Ordezkarien Biltzarraren zeregina?

**E.** Denborarekin joango da Biltzar honen zeregina finkatzen. Zapatuan manifestu bat irakurri zen eta, ondoren, udal hautetsien mahaia osatu zen, besterik ez. Oraingoz, mahai horrek Udal Ordezkarien Biltzarra



Victoriano Gallastegi alkatea.

ARTXIBOA

bultzatzeko ardura du. Nire balorazioa oso positiboa da ikusirik udalok zer nolako harremana izan dezakegun hemendik aurrera. Udalek protagonismoa berreskuratuko dute Udal Ordezkarien Biltzarrarekin eta kolaborazio interesgarria lortuko da. Bestalde, Biltzarra irekia da eta abertzaleak ez diren alderdiek ere parte hartzeko aukera daukate.

**G.** Alderdi horiek gogor kritikatu dute Biltzar honen sorrera.

**E.** Itxura denez, ez daude Biltzarrean parte hartzeko prest eta harrিতuta nago guztiz legala den ekimen honen kontra entzun ditudanekin. Hainbat komunikabideren aldetik ere Biltzarraren kontrako kanpaina nabaria egin da. EUDEL-en kontrako beste elkarte bat

sortu izan bagenu..., baina Udal Ordezkarien Biltzarraren legala da. Ez ditut ulertzen horren kontrako ahotsak. Zeren bildur dira? Nork nabaratu du fronte bat ipintzea gure kontra? Espainian ez dago beste gairik itxura denez, zapatuan zenbaitzuk inbasoretzat hartzen gintuzten. Non daude, bada, adierazpen askatasuna eta biltzeko eskubidea? Dena den, politikari-poliki joango da Biltzarraren finkatzen eta ziur nago udal hautetsikundearen ostean gauzak aldatzen joango diren.

**G.** Egungo erakundeak ordezkatzeko tresna dela leporatu diote Biltzarrari. Erakunde horien artean, Biltzarrak zein funtzio izango du?

**E.** Biltzarra ez da orain funtzionamenduan diren instituzioen kontrako ezer. Biltzarra jaio berria da eta beste instituzioekin koordinazio lana ezinbestekoa izango da. Udalak eguneko ari dira lanean eta ondo ezagutzen dituzte herri mailako gaitzak eta herriaren beharrak. Udalen arteko harremanak sendotzeko tresna izango da Biltzarra eta sei herrialdeen arteko interlokuzioa nabarmen

**BUNKY** ★ ★ ★ ★ ★

ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta  
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar

★ ★ ★ ★ ★

Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21



**Gaspar**

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02 BERGARA





## Jesus Mari Garitano

Herri Batasunako zinegotzia

Udal Ordezkarien Biltzarra Euskal Herriak etorkizunean izango duen erakunde nazionalaren lehen oinarria da. Gaur egun euskaldunak hiru erakundetan ordezkaturik gaude eta zatiketa hori hautsi eta euskaldun guztion batasunerako lehendabiziko urratsa eman zen zapatuan Iruñean. Hori oso positiboa da. Bestalde, Iruñean sortu zen batzar iraunkorra lanean hasten den heinean, herri mailan ere elkarrekin lanean jardun beharko dugu. Abertzaleok nazional mailan batasunerako urratsak eman baditugu, herri mailan ere bide hori jorratuko beharko dugu baina, tamalez, Udaleko ordezkariekin ez da ezer aurreratu. Datorren legealdian, Udalean ordezkaturik dauden alderdi guztiak izan beharko dira gobernuan, ez azkenengo zortzi urteetan gertatu den bezala.



## Juan Mari Garitano

Eusko Alkartasunako zinegotzia

Udal Ordezkarien Biltzarra euskal herritarren batasuna lortzeko tresna egokia izango da. Gure helburuak lortzeko argi zegoen abertzaleok elkartu beharra genuela, bestela ez dago ezer egiterik. Biltzar honen helburuetako bat Euskal Herriaren independentzia lortzea da. Udalek oso lan aipagarria egin dezakete, beheko mailatik lan egiten duten erakundeak direlako. Biltzar honek orain Euskal Herrian dagoen administrazio ezberdinen arteko zatiketa apurtzen du. Benetan oilo narrua jartzen zitzaidan zapatuan Iruñeako bileran. Abertzaleen arteko elkarlan honek islarik izan beharko luke Bergarako Udaletxean ere. Ea behin betiko gauzak normaltzen diren eta orain arteko haserreak alde batera lagatzen ditugun. Udaletxera jende berria heltzea izango litzateke onena.

**G.** Egoera politiko berriak eta Biltzar honen sorrerak isladarik izango du Bergarako Udalean?

**E.** Legealdi hau bukatu arte tripartittoa errespetatu beharko dugu. Ekaineko udal hauteskundeen ondo-

ren, emaitzen arabera, ikusiko da zeintzuk osatuko duten udal gobernuak. Nik uste dut egoera politiko honen garapena egin daitekeela herri mailan ere baina HBko zinegotzietan eman nien erantzuna Plenoan: Li-

zarrako Akordioa dela eta, gu prest gaude akordioetara heldu eta horri buruz hitz egiteko baina, oraingoz, tripartitoarekin konpromisoa daukagu eta legealdia amaitu bitartean hori errespetatu egin beharko da. **B**

## ADOSTUTAKO PUNTUAK

Zapatuan Iruñean bildutako udal hautetsiek bost puntutan laburbildu zituzten udal izaeran oinarritutako instituzio nazionala eratzeko nahia eta helburua. Honako hauek dira bost puntuak:

1. Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzea.
2. Euskal Herriaren egituraketa politikoa eraikitzeari laguntza ematea, lurraldetasunaren lekuko izanik eta sei herrialdeetako udal ordezkariak esparru erkidean batzeko asmoz. Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik.
3. Erakunde iraunkorra izateko asmoarekin jaio da; borondateak pilatu eta batzeko sortua da eta ez du, ordea, beste erakunde baten bihurtzeko asmorik. Izan ere, erakundea nazio esparrukoa denez, Euskal Herriko antolakuntza instituzional zein politikoa egituratzen sortu beharreko azterketa eta eztabaidak bultzatuko ditu, dinamika politikoarekin bat eginez. Egituratzeko honen zehaztasunak prozesu demokratiko baten menpean adostu beharko dira, non euskaldunen parte hartzea funtsezkoa litzatekeen eta herrialde historiko guztien nortasuna eta izaera errespetatuko liratekeen.
4. Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea. Erakundea zabalik dago Euskal Herriko erkidego naturalen bere jardueran garatzen duen hautetsi guztientzat, politika, kultura, soziologia eta ekonomia erkidego gisa definitzen gaituzten lan eta lankidetzaren esparru guztien inguruko ekintza bateratua ahalbideratuz. Esparruok ondokoak dira, besteak beste: hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiroa, lurraldearen antolaketa, ekonomia garapena eta ongizatea. Lehendabizi, Euskal Herriari buruzko diagnostiko oinarritzak egiteko litzateke: geroago, nazio eraikuntzaren arazo eta erronka erkideei modu bateratu eta homogeneoan egingo litzateke aurre, eta proposamen zehatzak beste esparru instituzional batzuei, gizarte mugimenduei, erakundeiei, e.a. bideratuko litzazkieke.
5. Nazioartean, Euskal Herria nazio berezkoa eta desberdindua dela adieraztea, baita Euskal Herriak nazio gisa jardun nahi duela Europako geroko egituraketan eta instituzietan ere.

### IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

### TOKI-ONA Bodegoia-taberna


Eguneroko janariak / Txixizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

### ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12



Industrialdearen lehen pabilioiak eraiki aurretik, Ibargoiti baserriaren azpiko hegalaria eusteko lanak egingo dituzte.

## Ibargoiti baserriaren azpiko hegalaria eusteko 58 milioi PTA

### Industrialdearen urbanizazio lanekin jarraitzeko

**Labegaraietako industrialdearen urbanizazio lanen bigarren fasearen proiektua eta baldintza pleguak onartu zituen astelehenean Udaltzarak, hiruko gobernua-ren aldeko botuekin eta HBren ezezkoarekin.**

Industrialdearen urbanizazio obren lehen fasea amaituta behar zuen, baina lanak ez dituzte bukatu Ibargoiti baserriaren inguruko lurak ez ei daudelako oso egoera onean. Arazorik izan ez dadin eta lurrei eustearren, horma bat eraikiko da baserri azpian. Lan horien aurrekontua ia 58 milioi eta erdi pezetakoa da eta lehen bait lehen adjudikatu nahi ditu Udalak. Hiru hilabeteko epea izango da lanak egiteko. Lan horiek

egin ostean eraikiko dira Industrialdeko lehen hiru pabilioiak.

Hasieran aipatu bezala, HB proiektu honen kontra azaldu zen. Jesus Mari Garitano zinegotziak urbanizazio lanak hasi aurretik ikerketa geologikorik egin zen ala ez galdetu zion alkateari eta lanen lehen fasea hain merke (186 milioi pezeta) adjudikatzearren, orain bigarren faserako beste 58 milioi gastatu behar izana leporatu zion gobernu taldeari. "Lehen faseko lanak 225 milioi pezetatan lizitatu ziren eta obrak 186 milioitan adjudikatu ziren. Bestalde, orain zemento mordera sartu beharko da lurrari eusteko eta inpakto bisuala nabaria izango da, horregatik ez gaude ados proiektu berri honekin" esan zuen.

Asteleheneko Plenoan, Bergaran poligono industrialen garapena sustatu eta kudeatzeko sozietate anonimoa sortzeko proposamena ere onartu zuen Udaltzarak aho batez. Bergarako Bihergintza 98 S.A. izena hartuko du sozietate anonimoak. Hasierako kapitala 10 milioikoa izango da.

Bestalde, joan zen astean beste hainbat gai onartu zituen Udaltzarak. Besteak beste, Turismo Bulegoaren zerbitzuaren, pizinetako tabernaren eta erakusgelen zainketaren adjudikazioa arautuko dituen baldintza pleguak onartu ziren. Aste Santuan, udan (ekainaren 25etik irailaren 5era arte), urriaren 9tik 12ra arte eta abenduaren 4tik 12ra arte zabalduko da aurten Turismo Bulegoa.

### Bergara hazkunde ekonomiko orekatuena duen herrien artean

Bergara eta, orokorrean, Deba Garaiko herri nagusiak hazkunde ekonomiko orekatuena duten Gipuzkoako herrien artean aurkitzen dira. Bestalde, herritarren batzbesteko diru sarrerari begiratu, sarrera handienak dituen Gipuzkoako laugarren herria da Bergara. Gipuzkoako Foru Ogasunak 1997an herrialdean egin ziren 295.543 errenta aitortpenak ikertu ondoren ateratako ondorioetatik bat da. Ikerketan zehazten denez, Deba Garaia da hazkunde ekonomiko handiena eta orekatuena izan duen Gipuzkoako eskualdea. Foru Ogasunaren txostenak dienez, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatin, errentak oso era orekatuan banatuta daude eta, beraz, diru gehien eta gutxien dutenen arteko ezberdintasuna txikia da, Gipuzkoako beste eskualde edo herri batzuekin konparatuz.

Biztanle bakoitzaren diru sarreraren batzbestekoan dagokionez, Bergara laugarren postuan aurkitzen da (1.186.967 PTA). Bergararen aurretik, Donostia hiriburu (1.299.475), Aretxabaleta (1.253.219) eta Oñati (1.209.848) aurkitzen dira.

Errentaren jatorri nagusia lana da Gipuzkoan (%81,9). Gainontzekoa, kapital errentetatik eta jardueraren profesional eta enpresa-errietatik ateratzen da ikerketan jasotzen denez. Zentzu honetan, esan behar da lan jardueretatik ateratako errenta handiena duen eskualdea Deba Garaia dela (%86,8).

# Amaitu dituzte Eginno-Mallea etxeako fatxadaren berrizte lanak

**Joan zen astean amaitu zituzten Eginno-Mallea etxearen birgaitze lanak. Fatxada nagusiko lanak irailean hasi eta orain dela hilabete batzuk amaitu zituzten. Beste hiru fatxadetako aldamioak joan zen astean kendu zituzten.**



Zeresan ugari sortarazi du berrizte lanak herritarren artean.

Eudald Guillamet zaharberritzaile ospetsuaren aginduetara egin ziren Eginno-Mallea etxearen fatxada nagusiaren birgaitze lanak. Oso lan zientifikoa egin zen eta emaitzarekin gustora geratu ziren herritarrak. Beste fatxadetan egin den lanak, ostera, zeresan ugari sortarazi du. Luis Laskurain Suradesako arduradunak kontuak argitu nahi izan ditu. "Jendeak jakin behar du hasierako asmoa fatxada nagusia konpontzea zela. Azkenaldian asko hondatzen ari zen eta berrizte lanak lehen bait lehen egiten ez baziren, urte batzuk barru gal-

tzeko arriskua zegoen. Halere, fatxada nagusia hain ondo konpondu eta bestek zeudenetan lagatzea ez genuen egoki ikusi eta beste hiru fatxadak ere garbitzea erabaki genuen" esan digu.

Obra osoaren aurrekontua ia 11 milioi pezetakoa izan da eta fatxada nagusia konpontzeko 6 milioitik gora gastatu dira. Gipuzkoako

Diputazioak 3 milioi pezetako diru laguntza eman zuen fatxada nagusia konpontzeko. Gainontzeko ia 8 milioiak Udalaren eta etxearen jabeen artean ordainduko dira.

Masterreka kalera eta Irizar Jauregiko lorategira ematen duten fatxadetan harria garbitu, zuloak tapatu, finkatu eta paretak zar-

peatu eta pintatu egin dira. Atzealdeko fatxada garbitu, harri zatiak kendu eta zati batzuk finkatu egin dira. Horretaz gain, etxe osoan hegialak eta leihoak pintatu egin dira.

Luis Laskurainek dioenez, fatxada guztiak ondo berrizteko diru asko gastatu beharra zegoen eta aurrekontua asko haziko zen. Adibide bat ematearren, fatxada nagusia berrizteko aurrekontua, 24.000 pezeta metro karratuko zen eta gainontzeko fatxadetarako 5.000 pezeta metro karratuko.

Halere, Luis Laskurainek BERRIGARARI esan dioenez, Udalak proiektu bat egingo du etxea behar den bezala berrizteko, etorkizunean eman beharreko pausuk zehazteko. "Proiektua lantzen ari gara eta dirua dagoenean helduko zaio eta beharrezkoak diren lanak egingo dira, behin betirako etxea ondo geratu dadin".

## Mariaren Lagundia: 200. urteurreneko ekitaldiak aurkeztu ziren eguakitzean

**Joan zen eguakitzean** aurkeztu ziren Mariaren Lagundiaren 200. urteurrena ospatzeko urtean zehar antolatuko diren ekitaldiak. Metal laukotearen eta ikas-tolako abesbatzaren emanaldi laburraren ostean, bigarren mendeurrenari buruzko diaporama eskaini zen. Ondoren, Maite Agirrebeña ikasleak, Gotzon Iparagirre irakasleak eta Arrate

Iztueta gurasoen ordezkariak hitz labur batzuk zuzendu zizkieten eliza berriztuan bildutakoei.

Aurkezpen ekitaldian, Koruko Aizarna Kultura diputatuak, Eneko Oregi Hezkuntza sailburu ordeak, Victoriano Gallastegi alkateak, Begoña Zubizarreta Mariaren Lagundiko zuzendariak eta Jose Maria Setien Gipuzkoako elizbarrutiko go-



tzaiak ere hartu zuten parte.

Mendeurreneko ekitaldiei dagokienez, azarora bitartean hilero antolatuko di-

tuzte ekitaldiak: musika emanaldiak, kultur asteak, pailazoak, irteerak e.a. izango dira.

# Berrigara

355 zenbakia.  
1999ko otsailaren 12a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefonoa: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Kristina Romero.  
**Harpidetza:** Nerea Lazpiur.  
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Maripi Laskurain.  
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereizibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.  
**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Begarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

## gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### PUERTO DE SANTA MARIATIK

*Puerton, 1999ko urtarrilaren 25ean.*

Kaixo lagunok!  
Baldintzapeko askatasunaren zigorraren hiru laurdenak beteak ditugun herriko presoen aldeko plataformaren aurkezpenaz jakinik, aldi berean Gara aurkezten delarik. Bizi luzea Garari, eta ea desagertzen diren behin betirako mota horretako plataformak.

Beraien sorrera duten arazoien desagertzea esan

nahiko lukeelako. Arazoak (gatazkak) ez dira konponetzen ondorioak borrokatuz, zergatiak baizik. Eta ahalegin horretan murgildu behar gara guztiok justizian oinarrituriko bakea lortzeko itxaropena badaukagu. Garaiotan ezin dugu ezaxolati jarrai, ez eta koldarkeria babesten dutenen menpekotasunaren seguritatean babes-tuz, askatasun eza jokoan jarriko lukeen bizi-aukeraren aldean. Ez daitezela bel-durrak, hainbeste jokatzeko ari garen honetan, gure

kontseilariak izan. Gure herriaren geroa jokoan dagoen.

Hemendik nire eskerrit maitakorrenak plataforman osatzen duzuen guztiok, eta alde edo moldez ekimentera laguntzen duzuenok. Beste preso guztiak aharrik gabe eta batez ere beraiek sufritzen dutenak.

Besarkada handiena eta eskerririk asko denoi.

Bihotzez: Etxaniz. M. suak.

*Jose Mari Etxaniz*


### BERRIGARA GIDA 99: ZUZENKETA

Berrigara Gida 99 esku-liburuan telefono bat ez dago ondo. Bergarako Gida komertzialean, "Aholkularitzak" sailean (23. orrialdea) TBG AHOLKULARITZAREN telefonoa oker dago: 943 76 90 83 behar zuen eta 943 76 90 63 jartzen du. Beraz, telefono zuzena hau da: 943 76 90 83. Lerro hauen bitartez barkamenak eskatu nahi dizkiegu, bereziki, TBG AHOLKULARITZARI eta, era berean, gidaren erabiltzaile guztiak.

Bide batez, gogorarazi nahi dizuegu etxean gidarik jaso ez duzuenok, nahi baduzue BERRIGARAKO erredakzioan, Kultur Etxean, eskura dezakezuela.

Berrigara

## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Karnabalak direla eta, zein da zure ametsetako disfrazaz? Zertaz disfrazatu nahi ziñukie?



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.



**Iñigo Alkorta**

Egixa esanda, sekula ez dot euki fijiñorik inolako disfrazekin, txikittan be ez. Aurten be ez dakit zertaz disfrazauko naizen. Ikusi, egin bihar...



**Mireia Ortigosa**

Ohe jantzita juatia gustauko litzatake. Behin telebisiñuan ikusi neban tipo bat koltxoari lotuta eta mantak gaiñian eta barreguria emon zostan.



**Julen Aristegi**

Marziano, edo beldurrezko pertsonajeren bat, Dracula edo... Arraro samarrak dira eta beti gustau jat holako jantzixak.



**Pili Fernandez**

Era askotako disfrazak jantzi izan dittut eta ez daukat ametsetako disfrazik. Ez zait bururutzen disfraz berezirik. Inportanteena mozorrotu eta ondo pasatzea da.



**Maria Galarraga**

Ez dakit. Aurten troglodita eta arkatz joango naiz jantzita eta pozik nago bi disfraz horiekin. Asko gustatzen jat Karnabalak.



**Arkaitz Ruiz de Loizaga**

Pirata joango nintzake gustora. Gauza bategatik edo bestiatatik sekula ez naiz joan eta gustatzen jat. Aurten indio noa.

### ERRETRATU ZAHARRARI ZUZENKETAK

Pedro Andrinua Irrintzi tabernako jabea izandakoaren bisita izan dugu aste honetan BERRIGARRAN. Andrinuak zuzenketak egin nahi izan dio joan zen asteko "Erretratu zaharra" ataleko informazioari. Andrinuak dakienez, partidu hura 1980ko abenduaren 8an jokatu zen eta ez 1983 urtean, guk jarrita moduan. Pedro Andrinuak partidu hura iragartzeko egin zen kartela gordeta dauka oraindik. Beste oker bat ere bazegoen: Irrintziko tabernarietako baten izena ez zen Mikel Larrañaga, Mikel Galarraga baizik. Gainera, partidua hutsna amaitu zen Andrinuak esan digunez eta ezkongabeek penalti jaurtiketetan lortu zuten garaipena.

■ ikuspuntua: **xabier azkarate**

## Dena berdindu

Euskal Herrira etorri eta nola bizi garen ikusten duten askok bezala, beste askok ere geure aurreritziek in topo egiten dugu kanpora bidaiak egiten ditugunean.

Urrutirako bidaiak izango da, 15 bat egunekoa, gehienetan bidai antolatzen bat aukeratu du gure bidaiariak. Hasteko, ajentziarekin lehenengo harremanak, erabakia harturik daukanean, begiradaxo bat neuroren artean, ia zer dagoen, batzutan guda, beste batzutan krisia, edo hondartza zoragarriak. Hurrengo pausua, tokiari buruzko in-



formazio bilaketa, liburuak, interneta, eta abar, poliki poliki badao itxura hartzen.

Dena borobiltzeko bertan egondako baten aholku, argazkiak eta bideo emanaldi batekin bukatuztat emango dugu gure prestaketa. Joan da gure bidaiaria, eta bueltatu da handik 15 egunera. Zer daki egondako herriari buruz? Edo bertan bizi den jendeari buruz?


Zergatik aurreko gutzia? Aspaldi irakurri nuen 2000. urteko kutsadura iturri nagusia turismoa izango zela. Bidai batzuk tarteko

ulertzen hasia naizela uzten dut. Kutsadura zuzenaz gain —hegazkinak, autoak...—, beste kutsadura mota batzuk aipatzen zituen: ekonomikoa eta kulturala.

Nazio askoren diru iturri nagusia turismoa bilakatzen ari da eta, kasualidadea, hirugarren mundukoak dira gehienak. Beste baliabideak salduta eta lapurtuta daukate nean, gelditzen zaiena toki zoragarriak saltzea da. Beste kutsadura mota, eta agian larriena, kulturala da, hau azaltzeko irudi bat erabiliko dut: galipota berdintzeko erabiltzen dan apisonadora. Antzerako zerbait egiten dugu milioika pertsona alde batetik bestera ibiltzearekin: dena berdindu. **B**

■ asteko menua: **lasa jatetxea**

## Lumagorri oilaskoaren galantina



KOLDO LASA  
*Lasa jatetxeakoa*

### OSAGAIK (4 lagunentzat)

- Arrazako oilaskoa
- Baso bat ardo zuri, olio eta gazta
- Artoaren olioypina:
  - Arto egosia, goilarakada bat
  - Arto olioia, 50 cl
  - Sagardo ozpina, goilarakada bat
  - Oilasko errearen grasa, 50 cl
- Salda, 300 cl
- 3 gelatina orri

### PRESTAKETA

- Oilaskoa erre ohizko erara harik eta ondo bigundu arte: 20 minutu labe bizian eta 35 minutu labea itzalita.
- Oilaskoa atera eta plakako grasa desegiteko bota basokada bat ardo zuri eta salda (300 cl-ak). Hala lortuko dugu zukua.
- Honenbestez, gertu dauzkagu, alde batetik, oilasko errea eta, bestetik, zuku beroa.
- Oilasko erreari azala kenduko diogu lehenengo, ahalik eta osoen, eta gero, hezurrak.
- Azalarekin cake-molde txiki bat estaliko dugu eta bertan gainean jarriko dugu oilasko tirak eginda, luzetara. Bestalde, zukuari hiru gelatina orriak nahastuko dizkiogu eta nahasketa horrekin estaliko dugu oilaskoa.
- Hozten utziko dugu hozkailuan eta gero artoaren olioypinarekin aterako dugu. Artoaren olioypina egiteko 4 osagaiak nahastu eta artoa txiki-txiki eginda lortzen da.

■ adituen esanetan

## Ospelak

ARANTZAZU AZPIAZU, *podologoa*

Oso ohikoa da urte sasoi honetan, hotza dela eta, oinetan edo eskuetan ospelak izatea. Jeneralean zirkulazio txarra dutenek sufritzen dute arazo hau eta oinak eta eskuak ospeldu egiten zaizkie. Baliteke zenbait kasutan belarrietan eta sudurrean ere ospelak agertzea. Hotza eta beroaren arteko kontrasteagatik agertzen diren orban gorrixkak dira ospelak. Batzutan kolore morea ere hartzen dute likidoz betetako poltsatxo moduko hauek eta, ikutuz gero, beroak daudela igarri daiteke. Ospelek azkura sortzen dute eta nahiko deserosoak dira mina ere ematen dutelako.

Edozein adinetakoen artean ematen da arazo hau, baina gizonetakoek baino gehiago, gazteek eta emakumezkoek jasaten dute. Tratamenduari dagokionez, ospelak agertzen diren lekuetan masaje suabeak ematea eta ur hotza eta ur beroa tartekatuz urazpian jartzea izaten da onena, betiere ur hotzarekin amaituz. Gorritasuna daukagun lekuetan ere iodoa aplikatzea ondo etorriko zaigu eta arrailak agertzen diren kasuetarako pomada bereziak ere badaude. Era berean, ospelak erraz ateratzen zaizkienei, zapata erosoak eta artilezko galtzerdiak erabiltzea gomendatzen zaie. **B**

■ bergarako gordailutik

## EUSKARA Imanol Sorondo

A haleginak egin arren, ez nuen topatu euskarazko idatzirik Bergarako artxiboetan, ez Udaletxeetan, ez Parrokiakoetan, ez eta beste etxe batzuetakoetan ere. Noizean behin hitz bat edo beste, baina idatzirik ez. Herria euskaraz mintzatu arren, ikasketa nagusiak eta batxilergoak erdaraz egiten zituztelako izango zen agian, idazterakoan gehienbat erdaraz egiten zuten. Hori bai, sermoiak euskaraz egiten ziren, eta Udalak, agindu bat ematen zuenean, herriari euskaraz jakinarazteko eskatzen zien auzoetako apaizei.

XVIII. mendean Bergarako sendagileak euskaldunak zirelakoan nago; horrela, Orobio eta Basterratar Antonio (1727.ean hila), Irigoienar Martin (1735.ean) eta Oteazatar Miguel, elorriotarra, denbora gutxian. Honen ondoren, Pankorbon bizi zen Jaimetar Martin jauna izendatu zuten. Badirudi erdaraz mintzatu zuten. Hamabost urte beranduago, sendagileak zioena euskaratuko zuen laguntzaile bat edukitzeko agindu zuen udalak, eta Jaimetar Martin jaunak dimisioa aurkeztu zuen. Beste sendagile bat ekartzeko baldintzen artean, Udaletxeak hauek ipini zituen: esperientziaduna, jakituna, inguruetakoa, eta ahal balitz euskaraz mintzatu zena.

Euskaraz inprimitu zuten bi moldiztegi, behintzat, izan ziren Bergaran XIX. mendean. Bat Undianoar Jose jaunarena; maiatzeko hilari buruz argitaratu zuen liburu bat 1850. urtean; eta beste bat urte berean izenburu honekin: "Eusquerazko Manuala Sacramentuen ganeko eracusaldiak... Lendavician Vizcaico Parroco Jaun batek ango eusqueran paraturic, orain Bergaran Santa Marínaco coadjutore Jaunac Guipuzcoaco eusquerara viurtu duana".

Bigarren moldiztegia Matxaindar Frantziskorena izan zen. **B**



## “Zorion etxe hontako denoi...”

Joan zen egunean, **Santa Ageda bezperan**, herriko ikastetxeetako gaztetxoak eta beste hainbat talde kantuan eta eskean aritu ziren herriko kaleetan. Tradizioa arau, baserritar jantzita eta makila eskuan Santa Agedako kopla ezagunak eskaini zituzten atariz-atari. Ikasleez gain, esan bezala, San Joxepe jubilatuen elkarteko abesbatza, Antzuolako gazte koadrila bat, Alai taldea edota Jardun elkartekoak (argazkian Erresidentzian abesten) ikusi eta entzun ahal izan genituen Bergaran. Ikusten denez, Santa Ageda bezperak ez du indarrrik galtzen...

## Bideko arauak ikasten

**Jaurlearitzako Barne Saila**k bultzatutako kanpainaren barruan, **Bergarako 10 eta 11 urteko ikasleek bideko segurtasun arauak** ikasteko klaseak izan dituzte **Ertzaintzak** emanda. Saio teorikoan, kalean aurki daitezkeen trafikiko arazoaren azalpenak eman dizkieta ikasleei eta errealitatetik hartutako irudiekin egindako bideoa ikusi dute. Ondoren, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dute Ertzaintzak prestatutako zirkuituan. Ikasle batzuk oinezkoen papera egin eta besteak motorrean ibili. Hori bai, abiadura muga errespetatuz...



## Iñaki Rubio Marten

**Miguel** bere anaiarekin batera, **Iñaki Rubio** bergararra Tele-5ko **“Cronicas marcianas”** saioan ikusi ahal izan genuen joan zen urtarrilaren 26an. San Sebastian egunean Ser irrati katean bizkaitarren eta gipuzkoarren arteko txisteeekin parodia egin ondoren “Los mellizos del norte” izeneko bikoteak “Cronicas marcianas” saiora joateko deia jaso zuen. Euren **65. urtebetze egunean** Rubio anaiak beraien umorea erakutsi zuten Sardaren programan. Argazkian **Paz Padilla** umoristarekin ikus ditzakezue. A ze pare!

## 1956an jaiotakoak

Aurten **43 urte** egingo dituzten bergarrek euren anaiarteko eguna ospatu zuten urtarrilaren 30ean. Kintada hau biltzen zen bigarren aldiz zen eta oraingo honetan **40 lagun** izan ziren elkarrekin afaltzen. Argazkian, Osintxuko pelotalekuan ateratako argazkian ikus ditzakezue (kopiak Kiñun jaso daitezke). Musikaz lagunduta ondo afaldu eta giro onean gau ederri igaro zuten. Hurrengora arte!!



*Abenduan milaka eguzki...  
... otsailean milaka ordu*

# Lanordu bat akordioaren alde

*Otsailean ere, eutsi egizu zure konpromisoari*



---

*euskarari*



KONTSEILUA



# kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias Maketazioa: Iñaki Iturbe Publizitatea: Kristina Romero Erredakzio kontseilua: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga Testuen zuzenketak: Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu Telefonoa eta faxa: 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 31 zenbakia. 1999ko otsailaren 12a.

## Elayk lantegi berria Mexikon

### Urtebete barru jarriko dute martxan Celayako lantegia

**lazko urtearen amaieran, Elayk erabaki zuen Mexikon lantegi berri bat irekitzea. Proiektu honen helburua bikoitza da. Batetik merkatua zabaltzea eta bestetik EEBBak eta Kanadako merkaturik gertuago egotea.**

**G**aur egun Europako herrialdeek erosten dizkiete Elayri automobilen pieza: Alemania, Britainia Handia, Frantzia eta Italia esaterako. Orain, ordea, apustu handiagoa egitea erabaki dute Elayko arduradunek. Santi Zabaletak, Zuzendari Orokorrak, dioenez "gu han egongo ez bagina hangoak etorriko lirateke hona merkatua kentzera. Ez pentsa, Mexikon beste lantegi bat zabaltzeak Antzuolakoaren produktzioa murriztuko duenik. Produktua berdina izango da, baina merkatua berria. Antzuolak Europarako produzitzen segituko du eta Mexikoko lantegia EEBB eta Kanadan saltzeko helburuarekin jaiotzen da. Trokelayk egiten dituen lanak esaterako, trokelak, ez dira Mexikora eramango, han behar diren trokel guztiak hementxe egingo dira eta".

Datorren urterako Mexikoko lantegia martxan izatea espero dute Elayko arduradunek. Izan ere, "apiriletik Gabonak bitartean mexikarrak etorriko dira herrira makinaren funtzionamendua ezagutzeko. Antzuola mexikar bihurtuko dugu denboraldi batez". Honez gain, herriko langileek ere Mexikora joateko aukera izango dute.

Celaya hirian egingo den inbertsioa 1.000 milioi pta.koa izango da. Gaur egun 263 lagun ari dira Taldean. laz

7.000 milioiko fakturazioa izan zuten. Celaya, Guanajuato estatuan dago. Mexikon bi gune garrantzitsu daude automobilaren arloan, horietako bat Celayan. General Motors enpresak ere 500 milioi dolar inbertitu ditu Guanajuato estatuan duen lantegian.

#### BESTELAKO PROIEKTUAK

Elayren produkzioaren %88a automobilen merkatura zuzentzen da, baina bestelako gauzak ere egiten dira: Hewlett

Packard inpresorenzako hainbat pieza eta oraintsu Ginebran dagoen partikula azeleragailua deritzan proiekturako piezak esaterako. "Proiektua konplikatu samarra da beste herrialde batzuekin dagoen lehiakortasuna handia da eta. Den delat, proiektua bost urterako da eta hor egotea espero dugu".

#### AURRERA BEGIRA

Lizarraga auzoan dago Elay Taldearen egoitza nagusia. Orain gutxi bere heda-



1.300 m<sup>2</sup> gehiago handituko da Elay.

■ ■ ■  
Hazten segitzeko asmoa dugu. Poligonoa bat egiteko aukera txikiena ere bultzatuko dugu.  
■ ■ ■

dura handitu da eta oraintsu beste 1.300 m. karratu gehitzen ari dira. "Tamalez horixe izango da hementxe hazten garen azkenengo aldia. Jadanik geneukan zoru industrial guztia erabili dugu". Gai honen inguruan Udalak ere orain arte behintzat, nahiko lasai egon dela baieztatu digu Santi Zabaletak "nahiz eta sentsibilitate piska bat agertu duen azkenaldian. Hazten segitzeko asmoa daukagu eta poligono bat egiteko gutxieneko aukera ere, bultzatu egingo dugu. Nire ustez aurten aterako da zerbait gai honen inguruan".

Gaur egun gelditzen zaien aukera bakarra, momentuz behintzat, asteburuetan lana egitea litzateke. "Beti saiatu gara asteburuetan lanik ez egiten. Behartuta egongo bagina, nire ustez aukera hori 35 orduko lan astearekin baino ez litzateke izango posible. Horrela bultzatzea batek astelehenetik ostegunera lan egingo luke eta bigarrenak, berriro, ostegunetik igandera bitartean. Horrela lehiakortasuna mantentzeko bidea egongo litzateke eta lan orduak gutxitzen, bizitzeko denbora gehiago izango genuke. Hori akordio arrazionala litzatekeela uste dut. Orain dela hamabost bat urte ordu extrak edo lanorduetatik kanpoko orduak kentzen ere, lehenengotariakoak izan ginen. Orain ez gara hasiko asteburuetan lanean, asteko lanorduek gutxitu barik!".



263 langile ari dira Elay taldean.

## BESTE ARDURA BATZUK

1992tik 1997ra euskara areagotzeko plangintza garatu dute Elay Taldean. Euskalduntzeko planak euskaraz ez zekiten langileek euskaraz ikasteko lagundu du. Honen inguruan kaleratu diren azken datuen arabera, 200 lagunek dute euskaraz idazteko gaitasuna eta 223k, euskaraz berba egiteko gaitasuna dute.

## INGURUGIROA ZAINTZEN

Elay Taldean Seytra da premia gehien duen lantegia. Tratamendu termikoak, berrestalketak eta plastikozko estaldurekin lan egiten da han. Orain Produkzio Garbia proiektua martxan ipini du IHOBerekin. Helburua produkzioaren hasieratik ahalik eta gutxien zikintzea da, horrela produkzioaren ondorengo pausoetan hondakinak gutxituko dira. Jadanik ISO 14.001 Ingurugiro araua lortzear dago. Ekainerako egiaztagiria ateratzea espero dute. Ondoren, Taldeko beste enpresek segituko diote bide berari.

## KALITATEA

Elay Taldeak ISO 9002 lortu zuen orain dela urte batzuk eta abenduan, berriz, Q2 9000 izendapena lortu zuen. "Errekonozimendu honek ingurugiroa eta gestioa baloratzen ditu; ez da ingurugiroarekin dugun errespetora mugatzen. Beharroarekiko gestioa eta lantegiarena erantzun kontuan dituen errekonozimendua da. Dena dela, ez gara oso sarizaleak!".

## DATU ADIERAZGARRIAK

**1965:** Elay S.A. sortu zuten Jose Luis Elkorok eta Claudio Aiastuik.

**1985:** Balzers-Elay eratzen da.

**1988:** Seytra jaiotzen da.

**1995:** Elay Industrial eta Trokelay sortzen dira.

**1996:** Elay Taldea eratzen dute aurreko enpresa guztiak batuz.

**1999:** Elay-Mexiko irekiko dute Celaya hirian (Mexiko).

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Maketak eta tapizatuak •

**GOROSTI**  
**Taberna**

☎ 943 76 62 96


Zurrategi plaza ANTZUOLA

**ANTZUOLA**

Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
Tf.: 943 72 30 05  
Billegia: 943 78 70 40

**GAILUR**  
taberna eta  
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tf. 943 78 70 32

# Babestutako etxebizitzei buruzko hitzaldia

**Otsailaren 13an**, zapatua, bilera egingo da Guraso Elkarteko zine aretoan, Udalak egin nahi dituen etxebizitzaren gainean. Bilera horretara etxebizitza lortzeko izena eman duten antzuolarrak gonbidatu dituzte udal ordezkariak, hala ere, deia nahi duten antzuolar guztiendako da.

Joan zen otsailaren 2ko udal batzarian Udalak hasierako onarpena eman zion Antzuolako plangintza-arau subsidiarioetako 30. Hirigintza Garapenerako Areaken xehetasun azterlanari. Erabaki honen arabera, promozio hau aztertzen ari diren arkitekto eta teknikarien azterketa ontzat eman du Udalak. Etxebizitzaren azterketa lana Corta eta Guibertek egin dute; urbanizazio azterketa Toledo taldeak eta birpartzelazioa, berriz, Ekimenek burutu du.

Horrez gain, etxebizitza horiek egiteko, Udalak Antzuolako Udal Etxegintza elkartearen eratu du. Hasiera batean hiru

aukera zeuden etxebizitza publikoak egiteko eta horietako bat Udalak berak elkartearen eratzeara zen, bazkide bat hartuaz. Orain bazkide hori bilatu beharko du Udalak. Bazkidea etxegintzako enpresa bat izan beharko da. Baina bazkidea hautatzeko, lehenik eta behin Estatutuak aldatu behar dira, eta horretarako Akziodunen Batzar Orokorraren baimena behar da. Kasu honetan, ordea, ez dago arazorik, Udala bera baita akziodun bakarra.

Beraz, bazkidea aurkitzeko oinarriak onartzea eta aurkeztu diren artean egokiena hautatzea gelditzen da, etxebizitza publikoaren proiektua martxan jartzeko. Honen berri ere emango da zapatuko bileran.

## BILERA DEIA

Otsailaren 13an, zapatua, egingo da bilera zine aretoan, goizeko 12etan. Antzuolar guztiendako izango da.

## INAUTERIAK IKUSGAI

Erakusketa bitxia antolatu dute Udaletxean astebururako. Karnabalak oinarritzat harturik, inauteriei buruzko ikuspegi berezia erakutsiko da Udaletxeko batzar aretoan. Izan ere, txotxongiloen bitartez karnabaletako irudiak izango dira ikusgai.

Txotxongiloek mozorroturik Euskal Herriko inauterietan zehar bidaiatzeko aukera eskainiko digute. Erakusketa zapatu eta igandean egingo da zabalik, 12:30etatik 14:30etara eta 19:00etatik 20:30etara.

## LITERATUR LEHIAKETA

III. Patxiku Txerren literatur lehiaketa jarri du martxan Udalak. Auten ere parte hartzaileak lau taldetan banatuko dira:

12-16 urte bitartekoak, 17-29 urte bitartekoak, 30 urtetik gorakoak eta jubilatutakoak. Honen arabera, lanek ere luzera ezberdina izango dute.

Antolatzaileek jendearen parte hartzea bultzatu nahian iaz baino epe luzeagoa laga dute lanak aurkezteko. Sariak lehenengo taldean 20.000 PTA. izango dira eta beste guztietan 25.000 PTA. na lortuko ditu irabazleak. Idazlanok apirilaren 26a baino lehen aurkeztu beharko dira "Patxiku Txerren literatura lehiaketa" izenburupean Udaletxean bertan. Informazio gehiago Udaletxean.

## MENDI IRTEERA

Arrola Mendizale Elkarrekin ekin dio urteko martxari eta datorren otsailaren 21erako beste mendi irteera bat antolatu du. Oraingoan Andarto eta Degurixa bitartean ibiliko dira mendigoizaleak. Izen ematea otsailaren 15ean, astelehena, Arrolaren egoitzan, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara.


## IPUIN SAIOA

Itziar Zubizarreta ipuin kontalariak ipuin saioa eskainiko du gaztetxoentzat. Ipuin saioa Udal Liburutegian izango da otsailaren 26an, eguakitza, 18:00etan.



Honelakoak izango dira etxebizitza berriak.

VALEN MOÑUX



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-urreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatua eta barnizaketa •

# Iritsi dira Karnabalak

## Kalejira ondoren, plazan dantzaldia izango da

Urte bat gehiagoz eguneroko mozorroa etxean laga eta bestelako itxuraz aterako da jendea kalera asteburu honetan. Izan ere, karnabaletako asteburu dugu gain-gaiean. Herrian ere, eta iazko arrakasta ikusita, gizon eta emakume talde bi, mozorrotu eta kalera aterako dira giroa alaitzera. Ia bi hilabete egin dute ikasten eta prest daude ikasi dutena erakusteko.

**N** esken taldean 20 bat bikotek jardun dute Iparraldeko Makila Txikien dantza ikasten. Iaz Txerri dantza plazaratu zuten. Aurten, ordea, serioagoa izango da ekitaldia. Dantzari jantzita aterako dira kalera. Zuriz jantzita, hain zuzen ere. Euren ondoan, beltzez irtengo dira mutilak. Eurek Sorgin dantza egingo dute. Baina abantaila ere badute gizonetakoek, iaz dantza bera egin zuten eta. Emakume eta gizon taldeekin batera aterako dira Oinarin dantza taldekoak ere. Denak nahastuta ibiliko dira kalean gora eta kalean behera, orain da eta ondo pasatzeko garaia. Gogoratu kristauen ohiturak dioenez, garizuman sartuko garela karnabalean!

### OHITURARI JARRAITUZ

Gervasio Legorburuk dioenez, "Antzuolak karnabalak ospatzeko ohitura eta go-goia betidanik izan du". Sorgin dantza izan da herrian egun hauetan dantzariak plazaratu duten dantza. Baina nondik dator dantza hau? Gervasio Legorburuk gaia aztertu du eta bere ustez 1885 inguruan dantzatzen zen dantza hau herrian.

Mutilak gona eta guzti aterako dira kalera eta hiru pertsonaia oso berezi izango dituzte lagun: hartza, tximinoa eta domadorea.

1990etik ezagunak dira hiru pertsonaia hauek. Urte horretan plazaratu zuten lehenengoz dantza hau Oinarin taldekoek eta ordutik urtero atera izan dira kalera. Hiru lagun horien inguruan ez daude, ordea, gauzak argi. Hartza eta domadorea beste herri batzuetan ere ikusi ahal diren arren, tximinoaren aztarnarik ez dute aurkitu historialariek, Gervasio Legorburuk dioenez. Berak idatzi

duenez, "batzuen ustez deabrua edo txerrena ordezkaten du tximinoak".

### DANTZA EKITALDIA

Garai batean badirudi dantzariak baserri baserri ateratzen zirela diru eskean karnabaletan. Orain, ordea, ohitura hori ere galdu da eta kalejiran ateratzen diren arren, ez dute dirurik eskatzen. Hori dela eta, domekan, kalerik kale ibili eta gero, Herriko plazan elkartuko dira dantzari guztiak, hantxe eskainiko dute eta dantza saioa.

Txistulari, soinu-jole eta bestelako musikariak izango dituzte lagun gure dantzariak. Hori 12:30etan izango da eta ondoren Jubilatuetan izango dute bazkaria.

Arratsalde parterako ere, giro berria izango da. Gezalaga anai-arrebak arituko dira kalejiran eta beranduago plazan izango da emanaldia. ■



Iaz ere Sorgin dantza egin zuten mutilek plazan.

■ ■ ■  
Domekan Iparraldeko Makila dantza eta  
Sorgin dantza ikusteko aukera izango da  
■ ■ ■

**igok eta Txomin**

Pintura orokorrean.  
Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.  
Gotelesa, itzukuak eta  
bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA  
☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

# Aurtengo saridunak, aspaldiko lagunak

Xabier Larrañaga bigarrenkoz garaile amodiozko gutunen lehiaketan

Xabier Larrañaga 28 urteko getxotarra "Amodiozko gutunen Berrigara lehiaketa" bigarren aldiz irabazten duen lehena da. Xabierrez gain, gainontzeko sarituak ere ezagunak ditugu. Bigarren saria "ex-aequo" lortu dute Roberto Izagirre bergararrak (94ko edizioan akzesita eskuratu zuen) eta Josu Andoni Arenaza gasteiztarrak. Jon Sanchez 23 urteko bergararrak, berriz, herriko onenari dagokion saria laugarren aldiz lortu du eta, azkenik, irakurle gazteek emandako saria Adur Ezenarro ordiziarrak (iazko irabazleak) jasoko du domekako sari bana-  
ketan.



Jon Sanchez (ezkerrean) eta Xabier Larrañaga (eskuman) orain dela bi urte ere sarituak izan ziren.

**T**opikoetatik ihesi, Nacional-1 errepideko klub batean lanean ari den prostituta batek Dominikar Errepublikan utzitako nobioari idatzitako karta batekin irabazi zuen Xabier Larrañagak orain dela bi urte. Oraingo honetan, patera batean Tarifako hondartzara heltzear dagoen etorkin batek bere neskalagunari idatzitako karta aurkeztu du. Bere hitzetan, "gutun-mota honetan, maitasunaren adierazpena bera baino garrantzikoagoa da testuingurua eta marko hori ahalik eta ondoen marrazten saiatu naiz, nahiz eta Afrikatik etorritako etorkinen kasurik gertutik

ezagutu ez. Gutunean, etorkinak bere herrialdean lagatako neskalagunari idazten dio baina, aldi berean, bere bizi baldintzak eta ilusioak agertzen saiatu naiz". Gutun horri esker lehen saria (75.000 pezeta) jasoko du berriz Xabier Larrañagak. Getxotarrak Euskal Filologia ikasketak burutu zituen eta Muszikiko Udal Euskaltegiko irakaslea da. El Mundo egunkariko edota Aizu aldzikariko ohiko kolaboratzailea da.

Bestalde, Roberto Izagirren gutunean, gizon batek bizitza osoa ezkutuan maite izan duen emakumeari idazten dio. Josu Andoni Arenazaren lanean, berriz, zaharren egoi-

tzan hiltzeko zorian dagoen 61 urteko gizon batek gaztetan maite izan zuen neska idazten dio, orduan berarekin ez joanagatik damua agertuz. Aurreneko aldiz, sari bat bi lanen artean banatzea erabaki zuen epaimahaiak eta beraz bakoitzak 25.000 pezetako saria eramango du.

Emakume bati bidalitakoa bailitzan, bakeari idatzitako gutuna landu du Jon Sanchezek eta, laugarren aldiz, herriko onenaren saria lortu du (25.000 pezeta). Azkenik, Adur Ezenarro Irakurle Gazteen saria (Xabier Diaz De Zerioresen eskultura) irabazi du amodio birtualeko lan bategatik.

# PARTAIDETZA GORA ETA, BERRIZ ERE, GAZTEAK NAGUSI

**AMODIOZKO GUTUNEN** lehiaketako aurtengo ediziora 209 lan aurkeztu dira, iaz baino 65 lan gehiago. Hala ere, ezin izan da lehen edizioko errekorra hautsi: orduan 245 gutun jaso ziren.

Aurreko edizioetan bezala, Gipuzkoatik jaso dira karten gehiengoa (126); horietatik 37 bergararrenak ziren (iaz herriko 13 partaide besterik ez ziren izan). Bizkaitik 51 karta bidali dituzte, Arabatik 23, Nafarroatik 5 eta Lapurditik, berriz, beste 4 amodiozko esku-titz jaso dira.

Sexuaren arabera, gizonen eta emakumezkoen partaidetza parekatuta egon bazen iaz, aurten emakumeak izan dira nagusi: 124 karta emakumeek bidalitakoak dira eta gizonentzeko 85 lanak gizonen aurkeztu dituzte. Hala ere, emakumeak saririk gabe geratu dira aurtengo edizioan. Lehendabiziko edizioetik ez zen horrelakorik gertatzen.

Adinari dagokionez, partaideen erdia baino gehiago 18 urte azpikoak dira, gazteen artean lehiaketa honek duen gantxoaren adierazgarri. 18 urtetik 25 urtera bitartekoak

## LEHEN SARIA

Xabier Larrañaga, 28 urte. Getxo

Al Andalus, Hegira 1366. urtean

Gabon, Nadia maitea:

**T**arifa hurbil dago, baina zu aise hurbilago. Olatu bakoi-tzean zatoz kulunkari, bitsean nabigatzen ari da zure begien distira, zure eskuen leuna haize hotzaren hotsean. Hemen ere, Nadia, maite zaitut.

Badakit tenore hau ez dela maite izatekoa, gehiago errepertatu behar diodala pateraren etengabeko murmurioari zure aurpegi lausotiarri baino, gehiago ilargiaren abisuei oroimnari baino. Dena alferrik, ordea. So nekatua ortzemugaren jantzia bildu, mihia ur gazian freskatu, eztarria Ala ahalguztidunaren gorazarrean dantzatu, eta mugimendu guztiek ekartzen dute zure berri, guztiek idazten dute zure kaligrafia ene gogoa. Aspaldian ikasia da:

*"Negarrez hasi nintzen  
eperrak ibesean  
ikusituen nituelarik.  
Libre zirene, kontent  
negarrez ni  
malenkoniaz"*

Gaua amildu da gure buru eta bihotzean gainera. Begiak itxi ditut, oroitu zaitut, senditu zaitut. Ene barne eta mundua belztu dira eta lokartu, baina zure koloreen ostadarra ageri zait lotsati, uzkur, poliki poliki Rifeko mendiak, errekek, izarrak, umeak... ene ariman margotu eta zizelkatzeko. Ikutu zaitut, dastatu zaitut, eta ikutu naute iturrietako ur lasterrek, laz-tandu naute basamortuko goizalba urrunek. Une batean

haiek ere hemen zirela irudikatu dut. Dena alferrik, ordea.

Tarifa hurbil dago, baina zu are hurbilago. Plazatik heldu diren soinu eta argi mutuak jolasean ari dira gure aurpegiaren inguruan, gure ametsen ganbaran. "Zatozte, zatozte" ari dira xuxurlaka, lausengari, eta beldur naiz ez ote dudana fedea galduko haiei amore egiteko, ez ote den zure argazkia ilunduko hona gure Ibrahim eta Mahmuden geroaren bila etorri naizela ukitzeke.

Horregatik nahiko nuke, Nadia maitea, Europa tximeletaren hegala barreiatu hautsa balitz, almoazinaren ilunabarreko oihartzun apala balitz. Horixe nahiko nuke, eta autoen musikak zure ahots ixila ez gortzea, eta andreen irribarrek zure ezpainak ez mozorrotzea, eta olibondoetako izerdiak zure sabelpeko ttantak ez ahanztaraztea. Nahiko nuke, Nadia, laranja, zoko, eguzki, musu eta kadira bezalako hitzek ene zainetan larruazalako tatuaiaren gisara betiko irauenen balite. Aspaldian ikasia da:

*"Edertasunaren beloak  
zetaz eta iraganaz  
zituen engainatu  
bakartiaren malgoak"*

Adio, Nadia. Tarifan nago, izenik gabeko hondartza batean, itsasorik gabeko ilusio batean. Baliteke hemen urtebete ematea, baliteke guardiek harrapa eta kartzeleratzea. Dena dela, hemen edo han, nonahiko bazterretako kartoiaren babesean edo zure begiraden fereken oihartzuan, Ala ahalguztiduna izanen dut ene urratsen gidari. Berak nau eramanez gure bihotzen pausalekura. Adio, beraz, eta besarkatu, ene esperoan, hondarrek arrats hartan erein nizun alegrantzia.

Ismael

**CAMACHO**

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35



**Sukaldeak.  
Horma armairuak.  
Neurrira egindako  
altzariak.  
Ateak eta leihoak.  
Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86



*Asteburuetan bertako  
babak eta sabieskia*

SALBADOR 10 ELGETA  
Tf. 943 76 82 73

ere dexente izan dira (%27). Adin horretatik gorako partaideek %13ko kopurua osatzen dute; lehen eta bigarren saria lortu dutenak gutxiengo horren barruan kokatzen dira.

Jasone Osoro elgoibartar idazlea, Andoni Egaña bertsoalaria, Garikoitz Berasaluze Egunkariako literatur kritikaria eta Juan Martin Elexpuru bergarar idazlea izan dira epaimahaiko lanetan. Orokorrean gutunak kalitate onekoak izan direla adierazi zuten zapatuko bileran. Elexpuru iaz ere epaimahaian izan zen eta eta bere esanetan, "iazkoak, gai aldetik, originalagoak zirela esango nuke. Aurtengo lan gehienek amodiozko gutunen eskema klasikoa jarraitzen dute".

Epaimahaikideek zera adierazi zuten; "erabilitako gaiei erreparatu, ezinezko harremanak dira nagusi, erromantizismo handia ageriz gehienetan. Kartzelatik bidalitako gutunak ere ugari dira eta baita hildakoak tartean direnekoak. Erostismorik ez da ape-

nas ageri eta umorea gutxi lantzen da. Harreman homosexual gutxi azaltzen dira beste edizio batzuekin konparatuz". Irakurle gazteen epaimahaian Erika Iturbe (Arantzadi Ikastola), Nerea Aiestaran (Ipintza Instituta), Garikoitz Garitano (Miguel Altuna) eta Nagore Iñurrategi (Mariaren Lagundia) ikasleak izan dira eta saritutako gutunaren originaltasuna, euskara aberatsa eta kartaren hasiera bikaina nabarmendu dute.

### SARI BANAKETA DOMEKAN

Ohiko den bezala, sari banaketa San Balentin egunean, domekan egingo da, 19:30etan Gartzela Zaharrean. Lehenbizi Pako Aristi idazleak eta Mikel Markez musikari eta kantariak poesia, hitzak eta musika tarkekatzen dituen "Tribuaren hitz galduak" eskainiko dute eta ondoren, 20:30ak aldera, sarituta-koek, musikaz lagunduta, euren lanak irakurrituko dituzte jendeaurrean.



Juan Martin Elexpuru, Jasone Osorok, Andoni Egaña eta Garikoitz Berasaluzek osatu dute aurtien lehiaketako epaimahaia.

### BERGARAKO ONENA

Jon Sanchez, 23 urte.

Euskal Herria, 98-12-12

Ene maitea:

**B**ete berri ditudan hoguei urteotan inoiz zu ikusi gabe begon izanak zure hatsa belarrian somatzearen zirrara lapurtu didan arren, banuen bai zure edertasunaren berri.

Beste emakume batez hitzegitean inoiz erabili ez duen gozotasunak besarkatzen zuen amaren ahotsa zutaz mintzo zenean, eta aitak... Beno, aitari zure izena aipatze hutsarekin korapilo askaezin bat kokatzen zitzaion eztarrian.

Hasieran, haurrek soilik antzeztu dezaketen harridura aurpegiaz entzuten nituen aitak zutaz esaten zituenak, adi, Olenztzeroren masail gorriei begira banengo bezala; ordea, aitaren ahotsa kontakizun bakoitzean bere indarraren asperen bat galduz joan zen, eta istorioak, geroz eta laburragoak izateaz gain, ilunagoak ere bilakatu ziren. Aita zu gabe bizitzera ohitu zen.

Zu gurekin ez egotearren errua bata-besteari leporatzea ohiko otordu gisa errepikatzen zuten nire gurasoek, eta sarritan izan nuen ametsa gogorarazten zidaten, non eskuek kopina apurtzen baitzuten. Panpin hura zu zinela uste dut, baina eskuen izenik ez dakit.

Esku beltz bat zegoen, Guardia Zibilak erabiltzen duen berdeaz margotutako beste bat, baita gorritz dindaturikoa ere, eta piskanaka odolez zikintzen zen esku haseran zuria. Esku bakoitzak panpina alde batetik heldu eta tiraka hasten ziren denak, aho ikustezinez kopina beraiena zela ohiukatzen zuten bitartean. Beste esku bat agertzen zen orduan, guztiz gardena, besteak geldiarazten saiatzen zena. Aho ikustezinik ez zeukan ordea, edo berau erabiltzerik ez zuen, edo besteek ez

zioten jaramonik egiten. Batek daki. Berdin dio gainera, teinkaden ondorioz panpina mila zatitan apurtzen zen-eta. Borroka denek galdu zutela konturatzen ziren orduan eskuak, panpin zati bat ez baita panpina, ezta panpin txikiago bat ere, askotan hala ikusi nahi dugun arren.

Ametsak amets, gure artean zaude orain, eta maite zaitudala esan nahi dizut. Horrela, zuzen-zuzen, berriz zu gabe bizitzea ezinezkoa egingo zitzaidalako. Aitak arrazoi zuen, ederra zara benetan, ez dago zure epeltasuna alboan somatzearen pareko sentsaziorik, baina denek zaituzte maite eta berriz aldegingo ote duzun beldur naiz. Horrenbeste urtez zutaz pentsatu, amets egin eta zu ikusteko unea desiratu eta gero ez zaitut aldegiten utziko, ez horixe, ez nago barnean nuen zuloa bete ostean berriz ustutzeak sortuko zidan mina jasotzeko prest.

Bakea, zenbat aldiz entzun ote dut zure izen gozoa benetan maite ez zaituztenen hitzetan. Zenbatetan usteldu ote zait barrena zure aita edo ama balira bezala ahoa bete-bete izanik zutaz mintzo zirenean; eta berdin jarraitzen dutela da okerre-na, zu gure artera beraiei bisita bat egitera etorri zarela uste baitute. Nik badakit hau ez dela egia, badakit nire ametseko panpina konpondu eta esku jadanik gardenek osotuko duten ohean lokartzerara etorri zarela.

Oker zaude beste maitemindu batzuk egiten duten legez nirea zarela letra larri idatzi edo hortik zehar zure bihotzaren saria bilatzen duten lehiakide guztiak hilko ditudala uste bazu. Maiteminduta nago baina ez naiz leloa, eta badakit zuegatik lehian hasi ezkerre panpina apurtu eta betirako aldegingo duzula. Zu zaintzen pasako ditut egunak, zutaz ametsetan gauak eta oskorriak maitasun gutunak idazteko erabiliko ditut, hor nagoela jakin dezazun.

Besterik gabe, zu gure artean egoteko ahalegin guztiak egingo ditudala zin eginez agurtuko naiz.



# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### ZAPATUAN BARRUAN

- 10:00: Mo(ko)lotov-Buya
- 11:00: Igandekoak-SLP
- 16:00: Ortz-Shaktale
- 17:00: OHZ-Bildurbarek Opel/Lam
- 18:00: Ezinleike-Tom Cat Argandolas
- 19:00: Arbe Kirolak-Xurruapak
- 20:00: FAC-Usoa

- Igandekoak
- Buya
- Bildurbarek
- Ortzi
- Arbe
- FAC
- Xurruapak

### ZAPATUAN KANPOAN

- 16:00: Etengabe-Urrutxurtu
- 17:00: Ion Autoak-La Juve
- 18:00: Pinturas Bergara-Patatus

- Ion Autoak
- P. Bergara
- La Juve

### DOMEKAN BARRUAN

- 10:30: Amilotx-Agiñaspi
- 11:30: Komando Piperrak-Irubide
- 12:30: Ari Ari-Moskis
- 16:00: Mongatxurak-Bar Canalejas
- 17:00: Azpeitxi Jatetxea-Pagomendi
- 18:00: Bayer-Uve Bikoitza
- 19:00: Jakina Patxaran Team-Ufala
- 20:00: HHH-Matxakategi

- Irubide
- Ari Ari
- K. Piperrak
- Pagomendi
- Mongatx.
- Ufala
- Matxakat.
- Jakina PT

## argi!

### Arbe Kirolak kontuz!

Arbe Kirolak taldeak kontuz jardun beharko du hemen-dik aurrera. Antolaketa Batzordeak jakinarazi nahi dio, formaltasun handiagoa eta zintzotasuna erakutsi beharko dutela partiduetan.

### Partiduak atzeratu nahi izanez gero

Antolaketa Batzordeak, berriz ere, adierazi du talderen batek partidurik jokaterik ez badu, garaiz adierazi behar dela. Beraz, ez da nahikoa aurreko egunean aurkako taldeari esatea, joan zen jardunaldian Jauja OH Zerezos taldeak egin zuen bezala.

## jokoz kanpo



GORKA MUJIKA  
Uve Bikoitza

- G. Nahiko apal zoazte sailkapenean, zer gertatzen da?
- E. Lehendabiziko itzulian ondo aritu ginen, baina orain partiduak jokatzera jende gutxi joaten gara eta horregatik gaude hirugarren; behetik hasita...
- G. Zein izan da bigarren itzuliko talderik gogorrena?
- E. Irabazteko zailtasun handiak ipini dizkiguna Artusamak izan da. Bestalde, Arbe Kirolak oso talde gogorra da.
- G. Zure taldeko jokalaririk aipagarriena?
- E. Aitor Markina, atezaina.
- G. Zein postutan jokatzeko duzu?
- E. Normalean atzean.
- G. Gustora zaude?
- E. Bai. Moldatzen naiz.
- G. Ze taldek irabaziko du liga aurretan?
- E. Bartzelonak.
- G. Eta zein izango da pitxitxia?
- E. Ez du merezi baina Kovacevic.
- G. Zenbat urte txapelketan?
- E. Uve Bikoitzarekin urtebete. Beste bi urte Matxakategirekin jokatu nuen.
- G. Txapelketan zerbait aldatuko zenuke?
- E. Arau batzuk zentzurik gabekoak dira. Esaterako, atezainak areatik irtezeko aukera izan beharko luke.

## gora eta behera



### Shaktale eta HHH

Antolaketa Batzordeak Shaktale eta HHH taldeen lana azpimarratu nahi du. Ondo sailkatuta egon ez arren, partidu guztiak jokatu dituzte eta ez dute inongo arazorik sortu ez partiduak jokatzekoan, ezta arbitratzerakoan ere.



### OH Zerezos: seriotasun falta

Jauja OH Zerezos taldeak hiru puntu gutxiago izango ditu, Azpeitxi Jatetxea taldearen kontrako partidua ez jokatzekoetik eta jokatzera joango ez zirela behar den bezala ez adierazteagatik. Ondorioz, Azpeitxi Jatetxearen kontra jokatu behar zuten partidua 3-0 galdutzat eman dio Antolaketa Batzordeak.

## emaitzak

Amilotx-Ion Autoak	8-4
La Juve-Igandekoak	4-0
Artusamak-FAC	2-2
Agirrebeñia Jatetxea-Matxakategi	8-4
Usoa-Ezinleike	4-0
Arbe Kirolak-Bayer	2-4
Xurruapak-Guadalest	7-1
Patatus-Agiñaspi	2-5
Buya-Amozkibar	1-6
Irubide Jatetxea-HHH	5-2
Ufala-Etengabe	5-2
Urrutxurtu-Komando Piperrak	8-1
SLP-Mo(ko)lotov	1-2
Sirimiri Eri-Txipiron	4-3
Ortzi-Errotagain	0-1
Mongatxurak-Pagomendi	5-7
Bar Canalejas-Shaktale	7-1
Azpeitxi Jatetxea-Jauja OH Zerezos	3-0

## sailkapenak

### 1. maila

	P	J
1. Azpeitxi Jatetxea	31	14
2. Errotagain	26	14
3. A Ze Flaxa Etxagi	23	13
4. Pagomendi	23	14
5. Ortzi	20	14
6. Bar Canalejas	20	14
7. Bildurbarek Opel/Lam	15	13
8. Mongatxurak	14	14
9. Jauja OH Zerezos	12	14
10. Shaktale	10	14

### 2. maila

	P	J
1. Bayer	15	5
2. Artusamak	14	6
3. FAC	12	6
4. Arbe Kirolak	10	6
5. Xurruapak	10	5
6. Sirimiri Eri	8	5
7. Ezinleike	8	6
8. Tom Cat Argandolas	7	6
9. Guadalest	3	6
10. Uve Bikoitza	3	5
11. Usoa	3	6
12. Txipiron	2	5

### 3. maila

	P	J
1. Moskis	15	5
2. Urrutxurtu	13	5
3. Ari Ari	12	5
4. Ufala	10	5
5. Jakina Patxaran Team	9	4
6. Irubide Jatetxea	9	5
7. Agirrebeñia Jatetxea	7	5
8. Matxakategi	4	6
9. Etengabe	3	5
10. Komando Piperrak	3	6
11. HHH	0	6

### 4. maila

	P	J
1. Mo(ko)lotov	15	5
2. Amozkibar	13	5
3. La Juve	9	5
4. Igandekoak	8	5
5. Pinturas Bergara	7	5
6. Agiñaspi	7	5
7. Amilotx	6	5
8. Ion Autoak	5	5
9. SLP	3	5
10. Buya	3	5
11. Patatus	3	5



## kronikak


**Futbola**  
**2. mailako**  
**jubenilen**  
**garaipena**

BKEko bigarren mailako jubenil mutilek 4-1 irabazi zuten joan zen asteburuan Soraluzen kontra jokaturako partiduan. Lau golak lau jokalariren eskutik etorri ziren. Bolinaga, Alejo, Manolo eta Angel izan ziren talde bergararrari garaipena eman zioten golegileak.

Derbia erreztasun osoz irabazi zuten bergararrek. Beste behin, Pablo Gallastegiren jokalariai partida polita jokatu zuten eta maila bikaina erakutsi zuten Ipintzan. Horren ondorioz, ikusleak ere pozik izan ziren partiduan zehar. Kopa txapelketako neurketa izan zen eta garaipen honek, bigarren postuan sailkatzeko balio izan die Pablo Gallastegiren mutilei.


**Eskubaloia**  
**Lijoren**  
**mutilak**  
**chapeau!**

Iraundi Bergara eskubaloitaldeak joan zen asteburuan partidua garrantzitsua izan zuen Zumarragako Urola taldearen kontra. Bergararrek 26-18 irabazi zioten bigarren sailkatuta dagoen taldeari. Lehen zatian bergararrak 12-6 aurreratu ziren markagailuan.

Hasieratik hartu zuen aurrea Bergarako taldeak. Defentsa lana oso ondo bete zuten eta, ondorioz, golak sartzeko aukera gehiago izan zituzten. Bigarren zatiko lehen 10 minutuetan ere defentsa lan gogorra egin zuten eta 10 goleko aldea lortu zuten. Zumarragakoek golak egitea lortu bazuten ere, partidua 26 eta 18 amaitu zen Bergarako Iraundiren alde.


**Saskibaloia**  
**Garaipen**  
**erraza**  
**kadeteek**

BKEko saskibaloitaldeak kadete mutilek emaitza bikainarekin amaitu zuten joan zen asteburuko partidua. Angel Ortizen aginduetara dauden mutilek 34-94 irabazi zuten Zumaiaren kontra.

Begarakoak konfiantza gehiegiz hasi ziren jokatzen lehendabiziko zatian eta horrek ez zien batere lagundu. Berehala, partiduan behar bezala pentsatzen hasi eta baloiak saskiratzen hasi ziren. Partiduan zehar nabarmendu zirenak Andoni Gonzalez (29 puntu) eta Jon Fernandez (18 puntu) izan ziren. Zumaiakoa talde berria da eta horrek abantaila eman zien bergararrei. Astebukaeran atsedena izango dute.

**IGOR GUTIERREZ / Pilotaria**
**"Finala uste baino errazago irabazi genuen"**

**Aurten 22 urte egingo ditu. Duela bi asteburu, Unai Arantzetarekin batera, Gipuzkoako afizionatuen txapelketa irabazi zuen. Une honetan Deba Arroko txapelketa jokatzen ari da eta aste batzuk barru, Federazioko txapelketan hasiko da Arantzetarekin.**

**G.** Gipuzkoako txapeldunak izan ondoren euskal pilotaren liga jokatzea tokatzen zaizue.

**E.** Bai baina federazioko presidentek liga jokatu beharrean federazioko txapelketa jokatzea erabaki du. Ez nago erabakiarekin ados. Txapelketa hau lehendabizikoa bezalakoa izango dela uste dut. Baina orainoan le-

hen mailan jokatuko dugu.

**G.** Nola joan da txapelketa?

**E.** Ez dugu ondo jokatu, baina ez zegoen maila handirik eta erraz irabazi dugu.

**G.** Eta finala?

**E.** Ez zen final polita izan. Oso taktikoa izan zen. Uste baino errazago irabazi genuen.

**G.** Zertan moldatzen zara ondoren?

**E.** Kantxa ondo babesten dudala esan daiteke. Falta gutxi egiten ditut. Sakeak ere ondo ateratzen ditut baina indarra falta zait. Bestalde, pilotan ari naizenean nire buruarekin asko hasarretzen naiz eta ikusleak ere hasarretu egiten ditut. Bergaran jokatu nuenean, esaterako, horrela gertatu zen eta barka-

mena eskatu beharra daukat.

**G.** Berraondorekin batera, nor ikusten duzu profesionaletan?

**E.** Iker Muruamendiarez. Dagoeneko bertan egon beharko litzateke.


**KARTELDEGIA**
**FUTBOLA**
**Bergara-Orioko**

Lehen mailako jubenila  
Zapatua. 16:30. Ipintza

*Asteburu honetan,  
Aratusteak direla eta, partidua  
bakarra jokatuko da Bergaran.*

**ESKOLA  
KIROLA**
**Karteldegia**
**ESKUBALOIA**

ALEBIN MAILAKO MUTILAK

**09:30:** Antzuola-Aranzadi

**10:30:** Aranzadi 8-  
Aranzadi 9

**11:30:** M. Lagundia B-  
Aranzadi 12

**11:30:** Aranzadi 11-  
San Martin

**12:30:** Elgeta-Aranzadi 13  
(Atsedena M. Lagundia A)

ALEBIN MAILAKO NESKAK

**10:30:** Elgeta-Aranzadi 14

**12:30:** Antzuola-  
M. Lagundia

(Atsedena, Aranzadi 15)

*Guztiak zapatuan,  
Aranzadi Ikastolan*

**PILOTA**

BENJAMIN MAILA

**09:30:** San Martin B,

Aranzadi 5, Aranzadi 2

**10:30:** San Martin A,

M. Lagundia B,  
Aranzadi 6

**11:30:** Aranzadi 1,

M. Lagundia D,  
Aranzadi 4

**12:30:** Aranzadi 3,

M. Lagundia E,  
M. Lagundia A

*Zapatuan, Zabalotaegiko  
Pilotalekuan*

# Vanessa Gimbert: bergarar bat Espainiako futbol selekzioan

## Espainia eta Andaluziako selekzioetan nabarmendu da

**Montillako Mondelia taldean jokatzen ari den bergararra, duela bost urte abiatu zen Cordobako Carlota herrira. 1995ean Andaluziako selekzioarekin debutatu zuen eta joan zen urteko apiriletik, Espainiako selekzioan Nacho Queda entrenatzailearen aginduak jarraitzen ditu.**

Hamahiru urte zituela, aitarekin batera, Bergaratik Carlota herrira abiatu zen bizitzera. Uda partean Cordobara gerturatzeko ohitura bazuen ere, Vanessari gogorra egin zitzaion horren gaztea izanik Bergara utzi eta Andaluzia aldera joatea. "Udako lagunak nituen baina oso gaztea nintzen eta aitzak erabakia hartu zuenean gogorra izan zen. Jendea eta ohiturak zeharo ezberdinak dira. Udako lagunak nituen baina ez da berdina. Bestalde, hemen beti dute parrandarako gogo. Berdin da asteguna edo asteburua izan".

Vanessa txikitatik izan da futbol zalea. Bergaran bizi zen garaian ez zegoen nesken futbol talderik eta eskolako mutil-lagunekin aritzen zen futbolekin. Cordobara joan eta Carlota ondoan dagoen futbol taldean hasi zen jokatzen. "Montilla herriko, Mondelia de Montilla taldean eman nituen ofizialki lehendabiziko urratsak futbolekin. Erdialdean jokatzen nuen eta orain ere horrela ari naiz".



Vanessa Gimbert (10 zenbakia) eta bere taldekideak Eskoziaren aurkako partiduan egindako gola ospatzen.

Urtebetera, partidu batean zegoen begirale bateri esker, Andaluziako selekzioak deitu zion. Normalean nagusien taldean jokatzen du baina batzutan 18 urte

**"Madrilen txapelkun ordeak izan ginen Euskal selekzioak finala irabazi ondoren. Maila handia dute Euskadikoak"**

azpitik dagoenarekin ere aritzen da. Bestalde, 1997ko apirilaren 24ean, Espainiako selekzioarekin debutatu zuen. Hainbat sarien artean, Vanessak Andaluziako txapelkunaren saria eskuratu zuen 1998ko azaroan.

### TXAPELKETAK

Martxoan, Andaluziako selekzioak Espainiako txapelketaren baitan fase berri bateri emango dio hasiera. "Espainiako txapelketarako sailkatzeko balio du. Normalean hiru fase izaten dira. Martxoan bigarrenari emango diogu hasiera. Azken fasean erabakitzen dira txapelketa nagusira joango direnak. Horretaz gain, Monti-

llako taldearekin liga jokatzen jarraitzen dut". Andaluziako selekzioaren azken txapelketa garrantzitsua Lloret del Mar eta Madril jokaturakoak izan ziren. "Azken honetan txapelkunordeak izan ginen, finala Euskadiko selekzioak irabazi zigun eta. Oso joko ona erakutsi zuten. Euskadiko selekzioan benetan jokatu oso onak daude".

### EUROPA ALDEAN

Espainiko selekzioaren artean, Europako hainbat talde ezagutzeko aukera eman dio Vanessari. Dagoeneko Alemania, Italia, Suedia, Eskozia, Noruega, Islandia, Ukraina eta Frantzia izan

da. "Noruega eta Suediako paisaiak benetan harrigarriak iruditu zitzaizkidan. Herrialde hauetan jokatu genituen txapelketetan hirugarren sailkatu ginen. Europa aldean, txapelketetaz gain, lagunarteko partiduak ere jokatzen ditugu".

Vanessak adierazi digunez, Bartzelona taldearen jarraitzailea da eta jokalarien artean Guardiola du gustokoen. "Madrilen askotan izan naiz selekzioarekin baina ez dut futbol jokalaria asko ikusteko aukerarik izan. Behin, Bartzelonako Oscar eta Espanyoleko beste jokalaria bat ikustea tokatu zitzaigun". **B**



Vanessa Espainiako selekzioaren kamisetarekin.

## Pilota Txapelketa Herrikoia IV. jardunaldia asteburuan



Besteak beste, Zabalotegiko pilotalekuan jokatuko dira partiduak.

**Hirugarren urtez**, Bergarako zaleek pilota txapelketa ez-ofiziala antolatu dute. Antolatzaile lanetan dihardutenak, Mikel Almorza, Duni Olabarria, Andoni Elkoro eta Igor Larrañaga dira. Bikoteen kopurua piskanaka piskanaka igotzen ari da. Liga eran jokatzen ari den txapelketan, hiru multzotan banatuta dauden 21 bikote ari dira aurten. Partiduak, eguakitzero, Zabalotegi, Ubera eta Osintxuko pilotalekuetan jokatzen dira.

## Axen Garitano Pirenako 31. postuan geratu zen

**Joan zen domekan** amaitu zen Pirena txakurlehen zeharkaldia. Guztira 63 partaide aritu ziren Pirena lasterketan eta Axen Garitano Bergarako ordezkariak 31. postua eskuratu zuen. Txapelketak hamairu egun

iraun zituen eta bertan aritutako musher eta txakurrek 500 kilometro inguru egin behar izan zituzten. Bestalde, Axenek Airtelek eman zituen Giza Komunikazioaren hiru sari eskuratu zituen.

## Mendi Bizikleta irteera

**Bergarako** Txirringulari Elkarteak antolatuta igandean emango zaio hasiera aurtengo mendi bizikleta irteeren denboraldiari. Mendi bizikleta zaletuak, igandean goizeko 9:00etan elkartuko dira, Bergara, Soraluze, Sagarrerreka, Hirutontorreta eta Bergara ibilbidea egiteko.

## Markinak brontzea eskuratu zuen Gasteizen

**Joan zen asteburuan**, Euskadiko arku tiraketa txapelketa jokatu zen Gasteizen. Bertan, Fernando Markina bergararrak brontzezko domina lortu zuen polea espezialitatean eta beterranoen txapelketan sari nagusia eskuratu zuen. Bestalde, Bergarako Jose Luis Arietaleanizbeasakoak 29 partehartzaileen artean 17. sailkatu zen, honek ere polea espezialitatean. Bi bergararrak Legazpiko Luma taldekoak dira eta duela bi asteburu, Gipuzkoako txapelketan 8. eta 9. sailkatu ziren.



Irizar 2  
☎ 943 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Osintxun pisua salgai.  
943 76 49 74.

San Lorentzon pisua salgai.  
943 76 21 63.

Osintxun pisua salgai.  
939 93 68 41.

Pisu amueblatua San Antonion.  
943 76 56 20.

Aranerrekana pisua.  
943 76 06 52.

Aranerreka.  
943 76 20 52.

Bolu.  
943 76 01 80.

Martoko.  
943 76 55 86.

Fraiskezurin pisua salgai.  
943 76 15 40.

San Lorentzo.  
943 76 48 39.

Masterreka.  
943 76 17 49.

**ERRENTAN EMATEKO**

Apartamentu amueblatua Espoioian.  
943 76 56 26.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua hartuko nuke alokairuan.  
943 85 36 99.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktatuak  
Deiak  
Bestelakoak

**ETXE KONPARTITUAK**

Jendea behar da pisua konpartitzeko Bergaran.  
943 76 71 93.

Etxe konpartituan gela bat hartuko nuke.  
943 76 21 48.

Gela nahi nuke pisu konpartituan.  
943 27 77 80.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Garajea salgai Artza-mendin.  
943 76 06 25.

Matzerreka.  
945 23 48 07.

Aranerreka.  
943 76 20 52.

Garajea saldu edo alokatzen da.  
943 76 40 03.

Aranerreka.  
943 76 28 07.

K.Gallastegi.  
943 76 27 61.

S. Marina.  
619 802 606.

B. Laskurain.  
943 76 47 86.

Ibargarai.  
943 15 15 81.

B. Laskurain.  
943 76 17 84.

Ibargarai.  
943 76 72 17.

Ibargarai.  
943 76 27 22.

Ibargarain salgai edo alokairuan.  
943 76 20 07.

**ERRENTAN EMATEKO**

Garajea alokairuan Poligonoan.  
943 76 32 58.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan.  
943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke.  
93 76 05 17.

**3. LOKALAK**

**ERRENTAN EMATEKO**

Lokala S. Pedro kalean.  
943 76 10 39.

Arte lanak egiteko lokal aproposa konpartituko nuke Arrasatetik gertu.  
943 71 42 86.

**4. LANA**

**ESKAINITZAK**

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulegoan lan egingo luke.

943 76 26 82/76 57 34

Ettxeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Arañ)

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Esperientziadun neska edadetuak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Erizain titulatuak gaurak, edadetuak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Jaiegunetan eta aste-bukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak etxeko edo eskalari lanak egingo lituzke. 943 76 70 15.

Esperientziadun neska, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 72 31.

**ESKAERAK**

Haurrak zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 31 11 (19:00etatik aurrera).

Pertsona euskalduna

**Euskarazko komunikabide batek**

## KOMERTZIALAK

behar ditu, publizitate salmentan aritzeko  
Deba Garaian

**Eskainiko da:**

Lan kontratua epe luzerako  
Soldata finkoa + komisioa

**Baloratuko da:**

Eskarmentua antzeko lanetan  
Komunikaziorako gaitasuna eta harremanetarako trebezia  
Eskualdean bitiztea

**Ezinbestekoa autoa izatea**

Interesatuok deitu deitu 943 30 02 22 telefonora  
otsailaren 19ra arte

**Motorra daukan  
mutil gaztea**

behar da  
etxez-etxeko  
banaketarako

Tf. 943 76 72 00  
11:00-15:00

## MUJIKA Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91



Gozogintzan  
aintzindari.

behar da goizez umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 08 06.

Pertsona edadetu bat zaindu eta etxeko lanetarako emakumea behar da. 943 76 39 61.

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAITZAK**

DHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Lizentziatuak enpresaritzan lehen mailako matematika klaseak ematen ditu. 943 76 32 31.

Majisteritzako ikasleak DHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

Ingenieritzan diploma-tuak DHO eta BBBko klaseak ematen ditu. 943 76 70 44.

Majisteritzan diploma-tuak klaseak ematen ditu. Deitu 943 76 10 17 telefonora (Rosa).

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Ford Scort 1100. SS-U.

Bolante deportiboa opari. 125.000 pezeta. 943 76 39 57 (Julian).

Peugeot 306 (SS-AV) salgai. 943 79 78 32.

Ford Escort XR3 egoera onean. 943 71 44 45.

Citroen BX egoera onean. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI kotxea salgai. 6 urte, egoera onean. 608 77 17 32.

Opel Corsa 1500 diesel. SS-AT. 943 78 71 12.

Alfa 33 QV (BI-AM). 100.000 PTA. 943 76 07 50.

Renault 5 Turbo kotxea salgai. 943 76 38 84.

Honda CR motorra salgai. 250 cc. 9 urte. 943 76 15 34 (Asier).

Ford Fiesta 1300 kotxea (SS-W) prezio onean salgai. 943 76 63 29.

Peugeot 205 GTI. 6 urte. Extrak. 943 72 53 78.

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Ardi txakurkumeak (arrak eta emeak). 943 81 56 20.

Boxer txakurkumeak salgai. 943 76 40 73.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Sega Saturn bideo kontsola. 6 joku. 943 76 40 00 (Mikel).

Opera eta kamara musika CD bildumak salgai. 943 76 58 05 (Juanje).

Peugeot 309 kotxeko aluminiozko haguak salgai. 930 687 635.

Eskiko taula, Tyrolia lotzekoak, Koflach botak (44-45 zka.) eta bas-toiak. 943 76 25 54.

"Gernika"ren narruzko koadroa salgai (100x50 cm). Interesatuak Arrano tabernan galdetu.

Tresiloa, bi siloi eta egongelako mahaia prezio onean salgai. 943 76 31 21 (13:00-15:30).

Sony irratia, Nad anplifikadorea eta Beyma bafleak salgai. 943 88 73 13.

Pentium-multimedia ordenagailua, inpresora eta programak. 907 34 46 58.

Bi oheko gazte logela. 943 78 25 85.

"Mendiz" bizikleta. Shinmano 600. 943 76 38 79.

150 litroko termo elektrokota eta bi akumula-dore. 943 76 44 96.

Ohe artikulatua. 90 zm.koa. 943 76 20 90.

Errepideko bizikleta (8-12 urtekoentzat). 10.000 pezeta. 943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai. 943 76 02 12.

Kotxeko bi gurpil berri 155/70 haguonekin eta orekatuak. 6.500 pta. 943 76 32 31 (Iñaki).

Jaunartzeko bi traje (marineroa eta neskatilarena) saltzen ditut. Berriak. 943 76 14 70.

Sega Master Sistem 2 kontsola (6 joku) salgai. 943 76 47 82.

Jaunartzeko trajea salgai. 639 93 68 41.

**EROSI**

Faxa erosiko nuke prezio onean. 943 76 08 19.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**JANTZIGINTZAKO MAKINEN ERABILTZAILA**  
Gernika-Bermeo. 15097/2

**GARRAIOEN KOMERTZIALA**  
Bidasoa Behea. 16485/1

**DELINEATZAILA MEKANIKARI-PROIEKTUGILEA**  
Deba Behea. 16145/5

**ZUZENDARITZAKO IDAZKARIA**  
Bilbo. 16507/3

**IGELTSEROTZA IRAKASLEA**  
Laudio. 16346/4

**PROFILATZAILAK, 2**  
Kantauri Arabarra. 16553/1

**ANALISTA-POGRAMATZAILA**  
Zamudio. 16426/2

**MIKROMEKANIKARIA**  
Deba Behea. 16555/2

**INSTALATZAILA ELEKTRIKOA**  
Urretxu. 16466/2

**SEGURTASUNEKO JAGOLEA**  
Durangaldea. 16645/3

**ZIRKULAZIO-ARDURADUNA**  
Bidasoa Behea. 16482/1

**TELEFONIA INSTALATZAILA**  
Donostia. 16651/1

**INFORMATIKA TEKNIKARIA**  
Zamudio. 16669/3

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Bergarako Gorla Alpino taldeak garbiketa eta bodegako lanetarako lagunak behar ditu**  
Interesatuok deitu Tf. 943 76 46 32 telefonora edo zuzendaritzarekin harremanetan ipini

**Larkano**  
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.  
Tf. 943 76 25 03




**Amodiozko gutunak 1993-1998 liburua salgai**

- ▶ 21 amodiozko gutun eta 150 piropo
- ▶ Liburudenda nagusienetan salgai
- ▶ 1000 pezeta



**San Balentin egunerako opari egokiena!**

**Kizkur**



Ileapaindegia  
Estetika  
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

RAMON ARANZABAL. Pintorea

*"Pastelekin pintura abstraktoa egitea ez ei da oso normala, beraz, trokelak apurtu ditut"*

**Ikusmin handia sortu du Ramon Aranzabalek (Arrasate, 1950) Kultur Etxean egun hauetan ikusgai duen pintura erakusketak. Formato txiki eta ertaineko 40 margo-lan eskegi ditu eta eguaztenerako erdiak salduak zituen. Abstrakzio lirikoaren inguruan murgiltzen den artistaren lanak (kolore bizikoak) domekara arte ikusi ahal izango dira.**

**G.** Pastelak erabiltzen dituzu pape-raren gainean pintatzeko.


**E.** Bai, kolore askotako hautsak dira eta atzamarrekin margotzen dut laminaren gainean. Etxean egiten ditut koadroak eta horrek erraztu egiten dit lana, espazio fisiko berezirik behar ez dudalako margotzeko. Gainera, pastela ez da oleoa edo pintura akrilikoak bezain zikina eta etxean mahaiaren gainean margotu dezaket.

**G.** Neurri txikiko edo ertaineko koadroak dira erakusgai dituzunak.

**E.** Teknikak mugatzen du neurria: koadro guztiek kristala behar dute, pintura babesteko, eta, beraz, koadro oso handirik ezin dezaket egin. Egunen batean oleoak erabiltzen hasten banaiz, neurri handiagokoak pintatuko ditut.

**G.** Zerbait adierazi nahi duzu pintatzen dituzun koadroekin?

**E.** Koadro bakoitza borroka bat da niretzat: batzuetan, lehenengo marrazkiarekin asmatzen dut eta hori lortzen dudanean, bide onetik noala pentsatzen dut; kosta ala ez kosta, helmugara heltzen naiz eta gustora geratzen naiz.



Ramon Aranzabal Kultur Etxean ikusgai duen koadro baten aurrean.

Beste batzuetan, ostera, nondik heldu jakin ez eta bazterrean lagatzen dut koadroa; denbora bat pasatutakoan, bat batean, lagatako koadroari berriz ere heldu eta, aldaketa batzuk eginez, berriz pintatzen hasten naiz. Hortaz, koadro bakoitza ikastaro bat da niretzat. Gutxitan hasi naiz margotzen alde zurretik pentsatutako zerbaiten inguruan.


**G.** Koadro batzuetan, errepikatzen diren elementu batzuk badaude.

**E.** Batzuetan, lan bat bukatu eta berehala jakiten dut hurrengoan zerekin hasi eta elementuak errepikatzen ditut, elementu horiei aurreko koadroan baino protagonismo gehiago emanaz.

**G.** Figuratiboaren eta abstrakzioaren artean mugitzen zara?

**E.** Insinuatu egin nahi dut: koadro aurrean jartzen denak lehen begiradan ikusi dezala lau marra bakarrik ez direla eta beste zerbait badagoela; entretenitzeko motiboak izan ditzala ikusleak. Elementu batzuk erraz identifikatzen ditu eta horren bila noa, nahiz eta interpretazio bat baino gehiago egin.

Bestalde, ez ei da oso normala pastelekin lan abstraktoak egitea. Pastela lantzen duen pintore batek esan dit horrelako materialekin abstraktoak egiten dituen inor ez duela ikusi. Uste dut trokelak apurtu egin ditudala. **B**



**GAZTELU**  
**BURDINAKI DENDA**

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



OZAETA JAUREGIA  
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29



**LASA**  
**Jatetxea**

# Migel Sagastume eta Felix Aranzabal Eibarren omenduak

Trikitiaren munduan egindako lana aitortu zieten

**Felix Aranzabal "Angiozarko itsua" eta Migel Sagastume "Mago de Urki" soinu-joleak omendu zituzten joan zen eguakitzean Eibarko Asteleena frontoian, Deba Beheko II. Trikitixa Lehiaketan.**

Bi omenduek, Aguleta baserriko Felix Aranzabalek eta Raizabal gozotegi-ko Migel Sagastumek, plaka oroigarriaketa Arrateko amabirginaren irudiak jaso zituzten Jesus Mari Ugarteburu ekitaldiaren antolatzaile nagusiaren eta Arrate irratiko ordezkarien eskutik.



Ugarteburuk, bi soinu-jole handi hauen gizatasuna eta maila artistikoa azpimarratu zuen. Ekitaldian, Deba Beheko trikitilari onenez gain, Azpillaga, Narbaiza eta Egileor bertsolariek ere hartu zuten parte.

Felix Aranzabal (79 urte) eta Migel Sagastume (67) inguruko herrietako hainbat erromeria eta jaialditan arituak dira. Migel Sagastume Kuban egon zen Bost taldearekin batera, 50eko hamarkadan bertako diskoteka nagusietan. 1950. urtean abiatu zen Kubara eta 1954. urtera arte egon zen bertan. Tropicanan-eta jotzen ibili zen; ondoren, Ariznoa diskotekan eta beste toki askotan.

Angiozarko Aguleta baserriko Felix Aranzabal Eibarren bizi da aspaldi eta izan du jarraitzailerik, bere semeak erromeriaz-erromeria aritzen baitira. San Martzialeko erromeriara, esaterako, ia urtero etorri izan dira.



Felix Aranzabal eta Migel Sagastume, joan zen eguakitzean Eibarren jasotako omenaldian.

ARGAZKIAK: FELIX MORQUECHO

erreseinak



Argia  
**Euskal Kulturaren Urtekaria**  
Urtekaria

Azken urteetako ohiturari eutsiz, "Euskal Kulturaren Urtekaria 1999" kaleratu du aurten ere Argia astekariak. Bertan, iazko urteak hainbat arlotan eman zuena jaso da. Besteak beste, antzerkian, artean, dantzan, musikan, edota unibertsitatean 1998an gertatu zena errebasatzen da. Horretaz gain, hainbat erakunde, elkarte eta talderen helbideak eta telefonoak ere badakartza liburuak; iritzi artikulua eta eikarrizketak ere bai.

- Argia. 127 orr. 2.000 PTA



Wazen  
**Erritmoa 2zi**  
Techno-pop

Diskoteketan, irrati formuletan eta tabernetan gero eta gehiago entzuten dira techno eta house soinuak eta gero eta jarraitzaile gehiago dituen musika estiloa da. Kilometroak 98 jaian izan genuen Wazen taldearen berri lehen aldiz. Tolosaldeko ikastolen alde Joxean Goikoetxea eta Jon Sarasuaren *Mundiala* kantuen Remix-a oso entzuna izan zen orduan. Carl Watermark-ek eta Chanek gidatutako taldearen lehen produkzio honetan, aipatutako abestiaz gain, Gloria Estefan, Kun eta beste Dj batzuen, eta Itoiz-en *Hegal egiten* ospetsuaren moldaketak aurki ditza-kegu, besteak beste.

- RunDown. 2.500 PTA

## ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA



☎ 943 76 20 61

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Eskola. 2. Suge itsua. Garen hauek. 3. Oinarrizko edaria. Kontuz. 4. Abesti. Doinu baten altuera. 5. Ate, hitz elkarrean. Eroan. 6. Islandia. Gramoa. Errepikatuz, gorotza. Bokala. 7. Behatokia. Infusio-mota. 8. Azkenekoa. Irautearen ondorioa. 9. Hiltzeko tresna. Errepikatuz, txori-mota. Hizki baten izena. 10. Suari dariona. Antzinako su-armak.

**Goitik behera**

1. Ausartak. 2. Usain txarra. Musika nota. 3. Fruitu-mota. Peruko hiriburua. 4. Euskal atzikia. Tona. Sasoi. 5. Tutuen multzoa. Azkenekoa. 6. Nire. Röntgen. Arazo. 7. Likido-masa txiki borobilak. Alaitasun. 8. Hamar. Barazki-mota. Fosforoa. 9. Hogeita lau orduko epea. Arraza. 10. Auzo. Euskaraz eta kitto!

**Soluzioa**

10. Auzune. AFK.  
9. Eguna. Enda.  
8. Tomate. P.  
7. Auzi.  
6. Ene. R. Auzi.  
4. Sa. T. Gara.  
2. Kiratsa. He.  
Goitik behera  
10. Kea. Zizpak.  
8. Z. Iraupena.  
6. ls. Gr. Ka. E.  
4. Kantu. Tonu.  
2. Zirauna. Gu.  
Ezker eskuma

**bonofotoa**



Miguel Angel Elkorobereibar

**Zein ordenetakoak ziren 1897az geroztik Masterrekan, Artekalean, Goenkalean eta, azkenik, Alkabetan egon ziren mojak?**

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Lasa** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Maite Agirre**rentzat izan da. Azpeitxi jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Maiteri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Zabalotegi**  
Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-B**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: 2: 3:

Izena-deitura:

Telefonoa:

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**LASA**  
Jatetxea  
OZAETA JAUREGIA  
Tf.: 943 76 10 55, faxa: 943 76 20 29



**Orkesta gizona bailitzan, akordeoi elektronikoarekin Jubilatuen elkartean dantzaldiak edota lagunarteko afariak alaitzen ditu. Atxabaltar honek 10 urte daramatza Sorraluzen bizi izaten eta Oñatiko Banco Guipuzcoanoan ari da lanean.**

## Iñaki Quintanilla

**Zeinek erakutsi zizun soinua jotzen?**

Felix Aranzabal "Angiozarko Itsuak", 14 urte nituenean.

**Zenbat ordaindu zenuen lehen soinuagatik?**

40.000 pezeta, orain dela 30 bat urte.

**Zenbat soinu izan dituzu?**

Hiru. Orain elektroniko bat eta 80 baxuko beste bat daukat.

**Gustoko soinujole bat?**

Miguel Sagastume eta Felix Aranzabal.

**Trikiti zaharra ala berria?**

Biak; Alaitz eta Maider eta horrelakoak ere gustatzen zaizkit.

**Trikitixa ala patxangadak?**

Nik batez ere patxangadak jotzen ditut; pasodobleak, tangoak...

**Dantzaldiak ala erromeriak?**

Erromeriak.

**Gustoko kantu bat?**

"Guapa, guapa, guapa" pasodoblea.

**Eta gehien eskatzen dizutepa?**

"Paquito chocolatero".

**Jendea errez hasten da dantzan?**

Emakumeak bai... Bergarako jubilatuek martxa gehien dutenak dira.

**Kantari ona zara?**

Ez, amak ere gaizki abesten dudala esaten dit.

**Eta nork abesten du ba emanaldietan?**

Jendeak, karaoketan bezala...

**Norekin jotzea gustatuko litzaizuke?**

Jose Gardoki soinujoletarekin.

**Kantari bat?**

Juan Pardo.

**Hobby bat?**

Bizikleta eta mendia.

**Inguruko mendi bat?**

Ernio.

**Sukaldari ona zara?**

Ez.

**Plater gustokoena?**

Babarrunak.

**Juergazalea zara?**

Ez.

**Sagardotegiren batean izan zara aurten?**

Oraindik ez naiz sekula egon...

**Zure bertute eta defektu bat?**

Alaia naizela eta defektua, lotsati samarra.

**Besteengan gehien apreziatzen duzuna?**

Egiazaletasuna.

**Zela mozorrotuko zara Karnabaletan?**

Presozain.

**Loterian jokatzen duzu?**

Lotoan.

**200 miloi irabazita, zer?**

Lan egiteari laga!

**Euroak buruhausterik ematen dizu lanean?**

Ez gehiegi. **B**



## San Miguel barnealdean dekorazioa

Banaketa eta dekorazio proiektuak etxebizitza eta merkataritza lokaletarako

Gremioen koordinazioa



AINHOA CARAZO ITURRIAGA.  
5630 elkargokidea

San Lorentzo 4. Posta kutxa 250. 20570 Bergara.  
Tf. 943 76 47 90. Faxa: 943 76 01 15

*Mujika*  
geologia



**Berezitasunak:**

Bizkotxoak  
Errellenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34

**DENA**  
**100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta 3

**ARDATZA**  
*Brikolaketa*

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behea  
☎ 943 76 18 93

## Txirrindulariak Labegaraietan, 1951

Gure herrian beti egon da txirrindularitzarako zaletasuna. Bergarako txirrindulari ezagunak ere eman ditu eta gaur egun ere hor ditugu Bergarako Txirrindulari Elkarteak edota Lokatza taldeak egiten duten lan aipagarria. Eskumako argazkia 1951. urtekoa da eta orduan ere baziren bizikletan ibiltzea gustoko zuten gazteak. Ziur gaude udan Tourreko kontuak jarraituko zituztena irratitik edo egunkaritik eta Coppirenak egiten saiatuko zirela Bergara inguruko errepideetan.

Antza denez, argazkian agertzen den hirukoteari "Los ciclistas del volador" izena jarri zioten. Ez dakiguna da sprinterrak ala eskalatazaileak ote ziren. Pedalei eragiten hasi baino lehen estilo bikaina erakusten dute behintzat; mai-lota eta kulotea jantzi beharrean hor dira praka, alkandora, jertse eta guzti. Erretratua Labegaraietan aterata dago, Zabala jatetxearen ondoan hain zuzen. Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara: Gonzalo Ruiz "Pitxin", Jabier Zabaleta "Bolin" eta Joseba Rementeria "Txoske".

Erretratua: Joseba Rementeria



### OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituztu, zatoz!

**MAHER**  
Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29  
943 76 22 90 - 943 76 26 75



**zumelaga**

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

# Esaiozu.



♥ Tissot "Serie Oro" erlojua.  
Irudi erlojutegia. Ibargarai 2.



♥ Esku-poltsa.  
Garnish poltsak. San Pedro 12.



♥ Gizonezko eta emakumezkoendako pijamak.  
Gantxegi mertzeria. Telesforo Aranzadi 2.

♥ Janira kuleroak eta barrurako zein kanporako kamiseta Igarza mertzeria. Irala 5.



♥ Larrosa... gorriak.  
Lislore loradenda. Barrenkalea 28.



♥ Diamante bat betiko da.  
Etxeberria erlojutegia. Bidekurutzeta 16.



♥ Calvin Klein eguzkitarako betaurrekoak.  
Manso optika. Irizar 2.



♥ Boucheron parfumea.  
Alga perfumeria. Ibargarai 10.

San Valentín  
egunean.

# centro hogar MUEBLES



a, eme...interiores

sukaldeak



Sofa  
leku

GRUPO  
**M**  
Amuebladora  
Mondragones

Zigarrola 1, 6-10 pab. • Garibai 9 • 20500 ARRASATE  
Tf. 943 79 15 03 / 943 77 14 92 • Faxe 943 79 14 89